

William

Shakespeare'n

EKATXA

(The Tempest)

Larrakoetxea'tar Bedita'k
euzkeraratuta

Antzerki onen ari azurrak eta abar

Or doatzu, euzkeldun irakurle, Shakespeare'k THE TEMPEST izenagaz eginiko antzerki zoragarria. Au nik euzkerararutoko beste irurak baño bareago yatzu, odol-antzerki barik barre-antzerki yatzu-ta. Emen agertzen dirian lagunak italiarrak dira, naiz-ta yazorik geiena izen bako izaro basamortuan yazo.

Euzko-ikaskuntza'ren Oñati'ko Batzarari buruzko idaztiaren 650'gn. orrialdean, Allende-Salazar'tar Yon yaunak bere idazti-sallean auxe diño : « Aipamen berezi-berezigarri da San-kotze (Naparroa)'ko seme Eslaba'tar Andoni'k idatzi, 1609'gn. urtean iarri ta argitaratu, gero doitxeraratu, ainbat aldiz birirrarri ta, dirudienez, Shakespeare'k bere antzerkirik ederrenetarikoko THE TEMPEST'en gaitzat erabiliko idazti NOCHES DE INVIERNO (Negu-Gabak) ». Allende-Salazar'ek aipatu doguzan bere itzen urren oar au iminten dasku : « Ikus Menendez Pelayo'ren ORIGINES DE LA NOVELA, 121-137 orrialdeak ».

Aor ba, aurrean dot MENENDEZ PELAYO ORIGENES DE LA NOVELA I ESPASA - CALPE ARGENTINA, S.A. Arakatu dot idazti eder au, ta bertan Eslaba'tar Andoni gure idazle naparra bein bakarrik aiputzen da, ta itzotan aipatu be : « ...el pueblo se contentó con leer el « Fierabras », y ni siquiera parece haber conocido el libro popular italiano « I Reali di Francia », que sólo muy tardíamente explotó Lope de Vega para una comedia, « La Mocedad de Roldán », y el navarro Antonio de Eslava, para algunas de sus « Noches de Invierno », no impresas hasta 1609, fuera, por consiguiente, del período que ahora estudiamos. » (...baña erriak askotzat izan eban « Fierabras » irakurtea, ta ez dirudi italiar erri-idazti ezagun « I Reali di Francia » gure erriak ezagun ebanik be ; orrako idazti ori berandu artu eban Lope de Vega'k « La Mocedad de Roldán » antzerkiaren gaitzat, eta Eslaba'tar Andoni naparrak bere

« Negu-gau » batzuen gaitzat ; idazti au etzan irarri 1609'gn. urterarte, ta, beraz, guk aztertzen daragoiogun arotik landa.)

535'gn. orrialdean Menendez Pelayo'k auxe diño : « Antiguos comentadores de Shakespeare, entre ellos Malone, afirmaron sin fundamento alguno que Shakespeare, en « La Tempestad », se había valido de la novela de Juan de Flores ; no hay ni la más remota analogía entre ambas obras. Todavía hay quien habla vagamente de una novela española utilizada en esta ocasión por el gran dramaturgo inglés ; pero esta novela, si existe, no es seguramente « Aurelio e Isabela. »

(« Shakespeare'n azaltzalle zarrak, eta euren artean Malone'k orretarako ezetariko oñarri ta bide barik, Shakespeare'k bere « Ekatxa » idazteko Juan de Flores'en elebarria erabili ebala esan dabe ; lan biak ez dabe ezetariko alkarren antzik. Badago oraindik beste norbait be ingelandar antzerkigille andi orrek bere orrako lan orretarako gaitzat españar elebarriren bat erabili ebala diñonik, baña gauza argi ta zeatzik ez diño, ta olango elebarririk ba'dago egon « Aurelio e Isabela » ez da beintzat.)

Agiri danez, okerreko lekura bidali gau Allende-Salazar'ek. Nik ez dot ez irakurri, ez ikusi gure Eslaba'ren idaztia ta, orregaitik, nik ezin esan « Ekatxa »'ren iturburutzat Eslaba artu geinkean ala ez.

Menendez Pelayo etzan izan egundo be gure adiskide mami, ezta gitxiagorik be.

..

Amen antzerkiaren ari ta azurrak. Posper yatzu Milano'ko Duke, baña Posper erririk yaurtzen eragoteko baño idazti artean biziteko egokiago izan-da, berak bere kitetik erria yaurteko eskubidea ta ardurea bere anai Andoni'ri ezarten dautsaz. Bitartean, bera idazti artean bizi da bere burua landuten, iñorentzako susmo txar barik.

Andoni'k, bein zaldi-ganera igon eta zaldiaren ago-ugeiak

eskuetan ikusirik, zaldia berak nora-gura eroan-eginik eztau ; dukegoaz yabetuteko asmo-gurariak buru-biotzetan gili-gili egin dautsoe ta zaldia ara eroango dau, bein zaldiri ondo esanda, bein bizkarrean txibiteaz yota. Onako oni esku-erakutsi emon ; orrako orri au naiz ori agindu ta abar. Aldi egokia eldu dala aste izan dauenean Napoli'ko bakaldunagana yo dau bere asmoen alde aren laguntza-eske. Napoli'ko bakaldunak arako ipuñeko leoiarena egiten dau : berak artu zatirik onena ta andiena. Andoni'ri lagunduko dautso, baña baldintza bigaz : Milano'k Napoli'ren bendeko izan bearko dau ta, orrez ganera, urtero onenbesteko zerga ordaindu ; orrezkeró, Andoni Milano'ko Duke izango da ta, Andoni'ren gurari-eskariak beteteko, Posper eta bereak erbesteratu egingo dira. Egiunea egin eta izenpetu da. Orain eretiaren begira.

Eldu da ereti ori. Posper'entzako zori txarreko gabaz azpiyaleen gudaroztea Milano'ko urira sartzen da arresietako atear zear, eta urrengo egunean Posper Milano'ko Dukea ta Mirande aren iru urteko alabatxoa orretarako gertu dagoan itxas-ontzian sartzen dabez, itxas-barruan beste ontzitxo zakar, zar, erdiustelera aldatu ta itxas-erdian bertan-bera izteko.

Yaungoikoz, Posper eta bere alabatxoa iñor bizi eztan izarora eltzen dira. Iñor bizi eztanera esan dot, baña ez, an bizi da Saikoratz izeneko atso sorgin Apirka'tik erbesteratuaren seme motel-totel, astegun-arpegi, larri-larri gizon-antzik eztauen Kaliban.

Orrez ganera, Ariel izeneko iratxo be aurkitzen dau zugatz birrintzatuaren birrintzan estu-estu sartuta elorrio gorrietan, arako Saikoratz'ek bera il-aurretik zigor-bidez an sartuta.

Posper'ek Ariel iratxoa azkatu egiten dau ta Kaliban'eri gizakiri dagokiozan zertxoak irakatsi, epearen epez, baña astirik geien bere alabeari irakasten emonda.

Posper'ek be bere aldetik bere asmoak dauz : barrien-barri

eskuratu gura dau Milano'ko Dukegoa ; amabost urte dauz Mirande bere alabeak ; ezkontzeko gai da ; bere idaztietan ikasiko bidez eta Ariel eta beste iratxoen laguntzeaz aurrera eroango dau bere asmoa. Napoli'ko bakalduna ta aren aundiki-maundikiak eta ontzidia Apirka'ko Tunixa'ra yoanak dira Bakaldunaren alaba Karibele ta Tunixa'ko bakaldunaren ezteguetara. Aik ezteguetatik etxerantza datozala, Posper'ek iñondiko ekatxa sortu ta eragiten dau Apirka ta Europa bitarteko itxasoan ; Napoli'ko bakaldun-ontzia beste ontzietatik bakandu egiten da ekatxaren indarrez ta suak artu. Ontzikoak ontzitik yauzi egiten dabe uretara ta al dauena izpastererra eltzen da igeri. Batzuk emen, beste batzuk or, besteak aragoan legorreratu dira, baña iñor be ezta galdu.

Ariel iratxoak, legorreratuak moltsoka zabaltzen dauz izaroran eta bakaldun seme bakaldun-gaia bera beretara izten dau, Posper'en aginduen arauz.

Bakaldun-semea Posper'en txabolara eltzen da, bere lagun barririk eztakiala ta berealako baten Mirande'kin maiteminduta akin ezkondu egiten da. Napoliko bakaldunak bere semea bizirik aurkituta, pozaren pozez zoratuta gelditzen da. Posper'eri bere dukegoa atzera emoten dautso ta, orrezkero, guztiak doaz Napoli'ra oso-osorik aurkitzen dan bakaldun-ontzian.

Bidea nondik eta nora doan erakutsi yatzu, irakurle, baña azur utsetatik azurrok izan dauzana liraina ala itxusia izan dan ezin igerri daiteke ; orretarako azurrak mamiz eta narruz yantzi bear dira ; olantxe, zuk be antzerki onen mamia ta narrua ikusi bear dozuz ederra dan ala ez yakiteko. Zeuk irakurri egizu, ba, ta astia pozik eta atseginez emongo al dozu. Agur.

EUSKERATZALLEAK.

EKATXA

**

NOTIN ANTZEZTUAK

ALBONTSA, Napoli'ko Errege.
SEBASTEN, aurrekoaren anai.
POSPER, Milano'ko Duke, eskubidez.
ANDONI, aurrekoaren anai, lapurretzaz Milano'ko Duke.
PERDINANDA, Napoli'ko erregearen seme.
GONTZAL, Napoli'ko Aolkulari zar-zindo.
ADIRAN, }
PANTZESKA, } Yaunak.
KALIBAN, Yopu basati-itxusi.
TIRINKUL, Barre-eragille.
ESTEPAN, Ardandegi-zain moskorti.
Ontziburu, Ontziyagola, ta Ontzi-mutillak.
MIRANDE, POSPER'en alaba.
ARIEL, eguratseko Iratxo.
IRITZ, }
KERETZ, }
YUNE, } Iratxoak.
Ur-neskak,
Igitariak

POSPER'en otseintzako beste iratxo batzuk.

Agerleku. — *Itxaso, itxasoan ontzi :
geroago, iñor bizi eztan Izaro.*

I. — EKITALDI

I. Agerleku. — *Itxasontzian itxasoan. — Ekaitz, Ostots
eta Oñaztuakaz.*

Ontziburu ta Ontziyagola aurrera.

Ontziburuak. — Ontziyagola...

Ontziyagoleak. — Emen nozu, ugazaba : nolan zagoz ?

*Ontziburuak. — Ni ondo : itz egin ontzi-mutilai : eldu arin
lanari, ostean guztiok gozak ondora-ta ; maneau, mutilak, ma-
neau. (Alde dagi).*

Ontzi-mutilak aurrera.

*Ontziburuak. — Eup, maiteok : gogotsu, gogotsu, maiteok ;
batu ta lotu arin-be-arin gorengo ontzi-oiala ; yaramon ontziburua-
ren txistuari. — Egiok putz ire eztarriak iztenak egin arte, asti-
rik izatekotan !*

*ALBONTSA, SEBASTEN, ANDONI, PERDINANDA,
GONTZAL eta beste batzuk aurrera.*

*Albontsa'k. — Ontziyagola on, ibili arduraz. Non da ontzi-
burua ? Gizonok yolasean daragoieo.*

Ontziyagoleak. — Arren-bai-arren, bean egon zuok.

Andoni'k. — Non da ontziburua, ontziyagola ?

*Ontziyagoleak. — Ez dozu entzuten bera, ala ? Zuok alpe-
rrik galtzen dozue gure nekea ; egon zuon ontzi-txokietan : zuok
ekatxaren lagun zarie.*

Gontzal'ek. — Tiruk, ba, adiskide, epe artu egik.

*Ontziyagoleak. — Itxasoak artu dagianean artuko dot. Alde
emendik ! Zer ardura dautse orroegilleoi erregeren izenagaitik ?
Ontzi-txokira ixilik ; ez emon guri zer-eginik.*

*Gontzal'ek. — Ondo dago ; orraitino gogoan izan nor do-
zun ontzian.*

Ontziyagoleak. — Ez neure burua baño maiteago dodanik.

Zu etzara txarra iñori aolkuak emoteko ; len-izakiok ixildu al ba'zenduz, eta une onetantxe bakea egin, guk ez geunskio ukutuko geiago lokarri bateri be ; eragin lan zure aginpide orreri. Ezin ba'dozu, ostera, emon eskerrak orain arte bizi izan zare-alako ta gertau ordu onetako zori txarrerako, olangorik yazo ba'dadi. — Gogotsu, maiteok. — Alde gure bidetik, arranook. (*Alde dagi*).

Gontzal'ek. — Argia benetan lagun onek dakarstan poza : eztot uste onek iñoz urpera yoanikoren atzik dauenik ; onen soña urkamendirakoren antz-antzeko da. Zori on, ekiok aurrera, ori eskegi dagigun ! Orren etorkizuneko lokarri meaz lokarritzarra egik, gurea eztok gauz ezetarako-ta ! Ori iñok eskegiteko yaioa ezpa'da, gu errukarri gara. (*Alde dagie*).

Ostera be Ontziyagolea aurrera.

Ontziyagoleak. — Eratsi ontzi-aga nagusia ; arin ; berago, berago ; ikusi ia aga txikietako oialakaz ondo doan. (*Barruan gedar*). Denganiñoaren gedarra ! Gedarrok axearenak baño zoliagoak dira, edo gure bealekua...

Ostera be SEBASTEN, ANDONI ta GONTZAL aurrera.

Ostera be ? Zer egiten dozue zuok emen ? Bertan-bera itxi ta ito egingo gara, ala ? Bai ete dozue ondora yoateko gogorik ?

Sebasten'ek. — Eztarri ori ustelduko al yak ! txakur ausikari, añenti ta erruki bako orreri !

Ontziyagoleak. — Orrezkero eldu zeuok lanari !

Andoni'k. — I eskegi,, txakur txatxar, i eskegi ! Emagaldukume, zaratatsu, lotsabako ori, itoteko bildur gitxiago yoaguguk.

Gontzal'ek. — Egingo neunke nik ori ezetz ito ontzia in-txaur-mokola baño sendoagoa izan ez arren, eta darion neskea baño eriotsuago izan arren.

Ontziyagoleak. — Yarri ontzia axea-begira, axea-begira : bide bi emon : itxas-barrura ostera be, zuzendu itxas-barrurantz.

Itxas-mutilak aurrera, busti-bustirik.

Itxas-mutilak. — Dana galdu da ! Otoietara, otoietara ! Dana da galdurik ! (*Alde dagie*).

Ontziyagoleak. — Zer, gure agoak otzik euki bear ete doguz ?

Gontzal'ek. — Errege ta erregegaiak otoitzari daragoioe ! lagun gakiezan, gure zoria areina langoxea da-ta.

Sebasten'ek. — Nik epea galdu dot.

Andoni'k. — Gure biziak moskortiak ostu dauskuez ziri ederra sartuta, — masaila - zur-andi zital ori ; itoten al engo luze, amar izkoren sastamar ori !

Gontzal'ek. — Oraindik ori eskegi egingo dogu ; ur-tantan bakotxak ezetzaren alde zin egin eta ori irunsteke agoa zabaldu-ala zabaldu-arren be (*Zarata nastua barruan*). — Gurearen erruki ! Arrakaldu gara, arrakaldu gara ! — Agur emazte ta umeak ! Agur, anai ! Arrakaldu gara, arrakaldu gara, arrakaldu gara !

Andoni'k. — Goazan guztiok urpera erregekin ! (*Alde dagi*).

Sebasten'ek. — Agur dagiogun. (*Alde dagi*).

Gontzal'ek. — Orain itxasoko milla gizalan emongo neunkez nik lur antzuzko estatu bategaitik ; astiñar, ida baltzeran, edozerdunagaitik : egin beitez Goikoa'ren gurariak ! Baña nik gurago neunke legorrean il. (*Alde dagi*).

II Agerleku. — *Izaroa ; POSPER'en txabola-aurrean POSPER eta MIRANDE aurrera.*

Mirande'k. — Aita laztan-lasztan, zure esku ta antzez imini ba'dozuz ur basatiok orroaka, otzandu egizuz ; d'rudienez, ortzeak ui andurrezko sua eralgiko leuke, itxasoak, ortzearen mosuraño yagita, su ori itxungiko ezpa'leu. Eneee ! nik yasan dodana, orreik yasaten ikusita ! Baikj barruan izaki argien batzuk eukazan ontzi txairoa birrindu-birrinduta gelditu da. Arein negar-arrantzak bioz-biotzean yo nabe ! Gixaxoak ! Yoanak dira. Ni almen-dun yainkorik izan ba'nintz izan, nik itxasoa legorrari iruntsiazozango neuntsan, iruntsi dauen ontzi eder eta barruan zamatzat eukazan lagunak itxasoak irunstekotan.

Posper'ek. — Seneratu zaite ; arritzerik asko yatzu ; zure biontz erukibereari iñok eztauela minik artu esan egiozu.

Mirande'k. — Enee ! Gaurko egunarena !

Posper'ek. — Iñok ezta minik artu. Egin dodan oro zu yagote-arren egin dot ; zu nire kutun ori ! zu, nire alaba ori ! Zuk eztakizu zu nor eta zer zarean, ni nondiko nazan eztakizuta ; txabola txiro betearen ugazaba Posper baño ta a baño asko argiago eztan zure aita baño askozaz obe nazanik be eztakizu zuk.

Mirande'k. — Egundo eztot izan geiago yakiteko gurari bi-ziagorik.

Posper'ek. — Zuri geiago iragarteko aldia eldu da. Ekazu eskua ta erantzi egidazu nire yantzi liluratu au... Olantxe ; (*Lurrean izten dau beso-bako ganeko yantzi luzea*). Atza or, nire antze. Legortu zure begiak ; izan gogo-argi ta txixari. Zu zure biontzeko erruki-errukian yo zindun ontzi-urperatzezko ikuskizun itzala nire aurre-ikusiz eta antzez esku-eskutik erabili izan dot-eta arimarik bat bera, ezta buruko ulerik bat bera be, ontzian negar baten entzun eta urperatzen ikusi zenduzan lagunetatik bat bera be ezta galdu. Yezarri zaite ; oraintxe oraindik geiago yakin bear dozu-ta.

Mirande'k. — Zu sarritan asi zara asi ni nor eta zer nazan esaten ; baño beti erdi-esanean gelditu izan zara, ta iñora ezeko azterketetan itxi izan nozu, azkentzat esanaz : « Etxon, oraindik ez. »

Posper'ek. — Eldu da orain tertzioa ; une-uneak zure belarriak adi-adi eukiteko agintzen dautzu ; izan esaneko ta egon buru-belarri. Gogoratu ete daikezu gu txabola onetara sartu-aurretiko aldirik ? Eztot uste zuk olangorik daikezunik, aldi atan zu iru urteko zintzan da.

Mirande'k. — Zalantza barik, yaun, ba-daike.

Posper'ek. — Zertatik ? Beste etxe nai lagunen batetik ? Esaidazu zelangoa zan zuk gogoratzen dozun edozein gauza.

Mirande'k. — Orreik antxinako gauzak dira-ta, nire oroime-nak atakotzat zalantza barik emotekoak eztira, ta bai ames-antze-koagoak : ez ete nebazan nik beñola niri yaramoteko lau edo bost emakume ?

Posper'ek. — Ba-zenduzan eta bai geiago be, Mirande : baño onek zelan ete dirau zure gogoan ? Zer besterik ikusten dozu zuk igaroko aldian eta aldiaren leza sakonean ? Ona etorri baño lenagokorik oroituezkero, ona zelan etorri zintzan be oroitu bear zeunke.

Mirande'k. — Orraitiño orrako ori eztot oroitzen.

Posper'ek. — Zure aita Milano'k Duke ta esku andiko gizon izan zanetik amabi urte, Mirande, amabi urte.

Mirande'k. — Yaun, zu etzara nire aita, ala ?

Posper'ek. — Zure ama ekandu on utsa izan zan-da, ak nire alaba zintzala esan eustan, eta zure aita Milano'ko Duke izan zan ; eta aren ondasunen yabegai bakarra duke-alaba. Orixe zara zu, ez bape gitxiagorik.

Mirande'k. — Enee ! Yaungoikoa-arren ! Yoko txarren bat egin bear izan gendun guk andik alde egiteko ; ala, ori gutzako onespén izan ete zan ?

Posper'ek. — Biak, biak, ene neskato : yoko txartzat dozunak atera ginduzan andik, eta zori onez yaurtin ona.

Mirande'k. — Enee ! Nire biontz odola dariola dago nik nire orrako oroipen orregaz ekarri dautzudan lorra gogoraturik ! Aurrera, otoi, aita.

Posper'ek. — Nire anai ta zure osaba, Andoni deretxona, a bai ba-dala iñondiko etoi, ta au gogoan izan egizu, arren ! Zure urren ma'te, ta nik nire duke-erria yaurriten imini nebana ; aldi atan nire dukegoa yaungo guztietarik gorengo zan eta Posper gorengo dukea ; adeigarritasunez eta antze-edergarritz entzute andiko ta bardin bako yatzun ; antze-edergarriok izanik ni buru-belarri irabazi ta eurekanatu ninduenak, eneuntson emon, ba, nire anaicari yaungoa ? Emon ba'neuntsan emon neuntsan. Nire dukegoarekiko ni geroago aldenduago nintzan, nire zaletasun eta ixileko ikasketai nire burua geroago emonagorik. Zure osaba zitalak... Adi ete zagoz ;

Mirande'k. — Yaun, adi be adi.

Posper'ek. — Bein ondo ikasi ebanean eskatua noz eta nori emon, eta noz eta nori ukatu ; nor eragi, ta nor moztu geiegi azi dalako ; ak barr'en-barr'i egin ebazan nireak izaneko lagunak ; aldatu egin ebazala edo-ta era-barritu egin ebazala esan gura

dot ; aginpidedunaren eta agintzearen, bien giltzak berak eukita, biotz guztiak bere belarriei gozo yaken otsera yarri ebazan ak ; orrezkero bera zan nire dukegoaren enbor-adarra intsigi ta aren muskertasuna iruntsi eban untza. Zu etzagoz adi ; arren-bai-arren, zagotaz adi.

Mirande'k. — Ene yaun on, adi nagotzu.

Posper'ek. — Nik mundu onetako arloa aintzat artu ez-ta, beti barruan egonda, ta olan bakarrik egonda nik nire gogoia giyetea erriaren niganako uste ona bañic beinegotzat etsita, ni olan nengoala nire anaiearen izakera ta lera biurria biztu ta itzari egin zirian ; eta nire uste onak, guraso onaren antzera, zitalkeria sortu eban, nire uste ona añako zitalkeria, gauzak itzuletara esanda ; nire uste onak izan, ez eban neurrik, atzenbako zan. A onan yaun eta yabe eginda, nire ondasun eta etorrien yaun eta yabe ezeze, orreiz ganera nik nire eskubidez eskuratu nengikeanaren yaun eta yabe be ; ak bera zala dukea sinistu be egin eban, bere biziaren onerako, esanaren esanez bere oroime-na egiarekiko obendi egiten dauenaren antzera ; nire ordezkotzeagaitik eta bere yardunean erregetzearen ezaugarriak erabiliagaitik, ta orreri deutoen zer bere-bereak erabiliagaitik : ortik aren biotzean geiagoaren egarria azita... Entzuten daustazu ?

Mirande'k. — Zure itzak, yaun, gortasuna bera be osatu egingo leukie.

Posper'ek. — Edestuko atal onen eta berau antzestu ebanaren bitartean argi-oztoporik ezarri barik, nai-ta-nai-ez bera izango da Milano'ren yaun eta yabe bakar : ni gizon onen zori txarreko ! Nire idaztitegia dukego andirik asko izan da ; ondasunekiko nire errege-eskubideetarako enau ni ak gaitzat. Napoli'ko erregeakin alkartu da, agintza-egarriren egarriz, ari urtero zerga ordaintzeko ta aren bendeko izateko ; bere burestuntxoaren burestunaren azpiko izateko, ta (enee ! Milano'ren errukarri !) egundo iñori bururik makurtu eztautsan dukegoak ari lotsaririk andienaz makurtzeko.

Mirande'k. — Ene Yaungoiko !

Posper'ek. — Oartu aren baldintzea ta ondorena ; eta esan gero ari anai deitu leikion.

Mirande'k. — Nire amamari buruz uste txarrik ba'neu, oben egingo neunke : sabel onak seme gaiztorik sortu izan dabe.

Posper'ek. — Orain arako baldintzea. Napoli'ko erregek, nire aspaldiko arerio gorri izan-da, gogo onez entzuten dau nire anaiearen eskaria ; eta eskari ori etzan besterik ni ta nireak dukegotik bertatik erbesteratu ta Milano liraina ta omen guztiak nire anaieaganatzea ; orren alde nire anaieak erregeri gorago aitatuko buru-makurtze ta nik eztaikit zenbat zerga ordainduta : Orrezkero, azpiyale-gudaroste batuta, zori txarrik orretarako gertauko gauaz, Andoni'k Milano'ko ateak idigi ebazan ; eta gau ilunez asmo orren aldekoen bendekoak ni ta zu, negar baten, andik iradu gorri atera ginduezan.

Mirande'k. — Ene ! Gure errukarri ! Aldi atan negar egin nebanik oroitu ez-arren, orain barrien-barri negar egingo dot. Erdizka iragarri orrek nire begiak sakatu egiten dauz orretarako.

Posper'ek. — Entzun apur bat geiago, ta orrezkero gure egiteko arlora eroango zaut ; ori barik au egokiez-egokieza litzateke-ta.

Mirande'k. — Zegaitik ez ete eben erabagi gu une atantxe iltea ?

Posper'ek. — Arira datorren itaun, neskato ; nire itzaldi onek dakarrena da itaun ori. Maite, etzirian azartu ; (Nire erriak maite-maite nindun ni) ezta euren egitekoari olango atz odoltsurik ezarten be ; euren asmo dongeak margo argiagoz margoztau gura ebezan. Labor esateko, iraduz eta arinka itxasontziratu ginduezan ; legoa batzuetako bidean itxas-barruratu ginduezan ; an ontzitxo zakar-ustel gertau euskuen ; ez itsutarik, ez kako ta txirrikarik, ez axe-oialik, ez ontzi-agarik ez eban ontzi zakar-ustel ; sagutoak eurak be, euren sentzunak eraginda, andik alginak ziran : ara aldatu ginduezan ontziz, orroak eragoion itxasoari guk negararrantzak egiteko ; axeai gure larri-arnasotsak egozteko, ta axeak euren arnas-ots errukiorrez erantzunda okerreko errukia erakutsi euskuen.

Mirande'k. — Enee ! Ni enintxatzun izango aldi atan eragozen makala !

Posper'ek. — Bai, zera ! Zu ni yagon nindun kerubea izan zintxatazan ! Nik itxasgana tantan gaziz estaltzen nebanean, goi-

tiko sendotasunez zuk irribarre egiten zeunstan ; nire zama aztu-
naren azpian urrumeka neragoionean, zuk adorea ezarten zeuns-
tan zer yazokoari arpegi emoteko.

Mirande'ek. — Zelan eldu gintzan izpasterrera ?

Posper'ek. — Yaungoikoz. Yakirik arean ba-gendun, bai
ur-pitin be, Gontzal izeneko Napoli'tar gizon zindoak errukiz
emonak (Gontzal au zan arako asmo zitala beteteko izentauriko
ontziburu) ; yantzi eder, liño-miesa, oial eta osteango bearreko-
ak be emon euskuzan, eta zerok arrezkero ederto be ederto
etorri yakuz ; eta ni idazti-zale nintzala ak yakinik, bere biotz
onez, nire idaztitegitik nik nire dukegoa baño aintzakoagotzat
dodazan idaztiak be emon eustazan.

Mirande'ek. — Egunen baten ikusiko al dot a. gizona !

Posper'ek. — Orain ni yagiten noa ; zu geldi egon yezarrita ;
ta entzun gure itxaslorraren azkena. Ona izaro onetara eldu gin-
tzan ; eta emen, zure irakastegi-irakasle onek, beste erregek ba-
ño on andiago egin dautzut, aik eurak astia uskerietan emon eta
euren semeak nik zuri baño gitxiago yaramoten dautsenen ardu-
rapean izten dabez-ta.

Mirande'ek. — Yaungoikoak ordainduko al dautzu guzti ori !
Eta orain, arren, yaun (Oraindik nire gogoan iraun dirau-ta), zer
dala-ta eragi dozu itxas-ekaitz au ?

Posper'ek. — Auxe bakarrik yakizu bein-beinean. Iñondiko
alan-bearrez, orain nire andera maite dan Zori esku-zabalak nire
arerioak izpaster onetara ekarri dauz ; nik aren eraginari yarrai-
bearrean, yarrai ezpa'dagiot, oindik aurrera nire zori ona iristuz
eta merrotuz yoango da. Ez itaunik geiago, zu lo-gura zara-ta ;
moteltasun ori ongari da ta itxi egiozu bere bidea artzen ; ba-
dakit zuk besterik ezin-dozuna. (*Mirande loak artzen dau*).

Agertu akit, otsein, ator : ora'n gertu naiagok ni ; urreratu
akit, ene Ariel.

ARIEL dator aurrera.

Ariel'ek. — Agur, ugazaba argi ! Agur, yaun ben ! Ni emen
nozu zuri naiarak egiteko ; dala egaz egiteko, uger egiteko, sur-
tan mosuz-aurre sartzeko, naiz odei kirimilduen ganean izartot-
laka ibilteko ; izentau lana Ariel'eri ta bere gaitasun guztiai zure
agindu zorrotzez.

Posper'ek. — Iratxo orrek bete-betea eta utsik egiteke sortu
ta osotu ete dok nik iri aginduko ekatxa ?

Ariel'ek. — Zeatz-zeatz. Erregeren ontziratu naz ; bein mus-
turean, bein garrian, ganean, etxoki bakotxean, itzal-ikarea su-
garretan imini dot : aldiz, zatitu ta sua ainbat tokitan ixitu izan
dot ; ontzi-aga nagusi-ganean, ontzi-oialetan, eta ontziaurraldeko
agen suak ixitu dodaz, eta gero su guztiai bat eragin : Yupiter'n
yusturi, ostots ikaragarrien aurrendari bizkorragorik eta beingo-
anagorik ezta egundo izan. Ango su ta sulpurrezko orroiak ate-
raten izan dabezan karraskadak entzun eta ikusirik, esan eite-
kean ontzia Netun (1) indartsu-indartsuak inguratu ebala, ta uru-
tu azarriak, bere iru ortzeko sarda bildurgarritz aztinduta, ika-
ratu egiten ebazala.

Posper'ek. — Nire iratxo azarri ori ! Nor izan dok iñondiko
naste-borraste orretan bere burua ez galtzeko lain sendo ta
yari ?

Ariel'ek. — Ez iñortxo be ; bestera, guztiai zoratu egin ya-
kien eta etsiena egiten eben ; itxas-mutilak ez, beste guztiak ge-
zaletan murgildurik ziran eta ontzitik alde egin eben, gero guz-
tiak surtan nikin ; Perdiñanda, errege-semea, buruko uleak zu-
tunik ebazala (iia zirudien, ez uleak), izan zan ontzitik larrien
yauzi egin ebana : « Su-lezea ustu egin da, ta txerren guztiak
emen dira » gedar egin eban ak.

Posper'ek. — Ba ! A nire iratxoa izan zan ! Baña ez ete zoan
yazo orrako ori izpasterretik ur ?

Ariel'ek. — Ur-ur, ene ugazaba.

Posper'ek. — Baña onik ete dira aik, Ariel ?

Ariel'ek. — Ule bat be eztau galdu iñok ; deutsen soñeko-
etan orban bat be ezta agiri, len baño orratzetik arakoago diru-
die ; eta zeuk aginduaren arauz, izaro onetan moltsoka zabaldu
dodaz ; errege-semea bera-berera (lagun barik) itxi dot legorrean ;
a an itxi dot asperenka izaroko okuluan, axeak ozkirritu dagian,

(1) Erroma'rentzako, Netun itxasoan yaun, yabe ta yainko zan. Itxa-
soa asarratu gura ebanean, itxaso urak bere iru-ortzeko sardeagaz az-
tindu ta itzultzen ei ebazan, luginak laiazaz lurra, naiz larrinean garia
aztintzen dauen lez. Erromarrentzako Netun zana, Poseidaon zan elade-
tarrentzako.

an yezarrita, aren guda-indarrak naste-borraste ta istillu gorri onetan dirala.

Posper'ek. — Esaidak, zer eg'n dok errege-ontziko ontzi-mutil eta ganetiko ontzidiaz ?

Ariel'ek. — Errege-ontzia onik da kajan ; gogoratzen ete dozu zuk bein Bermuda izaro ixil-geldietatik inñontza ekarteko gaberdiz dei egin zeunstanean ni non nengoan ? Ba, angoxe okolu sakonean ostonduta dago. Ontzi-mutilak, ontzi-estalgiairen be-aldean dagoz pilatuta ; eta euren lantegi neketsuari nire lilurapena erantsita, lotan itxi dodaz ; eta nik sakabanatuko ontzidi enparaua ostera be batu da ; eta Lurrarteko Itxasoan dira, gogoyaus'ta, Napoli euren aberrira yoteko asmotan, erregeren ontzia urperatzen eta errege andia itxas-ondoratzen ikusi ebelakotan.

Posper'ek. — Ariel, ik ire egitekoa zeatz egin dok ; baña oraindik egikizun geiago yagok. Eguneko ze tertzio dok orain ?

Ariel'ek. — Eguerdi-ostea.

Posper'ek. — Gitxienez ordu biak : oraindik eta seirak arteko aldia guk biok garrantzi andiko egitekoak burutzeko dok.

Ariel'ek. — Lan-arlo geiago ete dogu ? Neke-lorrek emon daustazuzanezkero, itxi egidazu zuk oraindik betetako dozun zure agindua gogoratzen.

Posper'ek. — Zer yoagu ? Gogaldi txar ? Zer dok eskatzen dokana

Ariel'ek. — Nire azkatasuna.

Posper'ek. — Epea bete-aurretik ? Ez al dok aitatuko olan-gorik !

Ariel'ek. — Arren, oroitu egizu, nik zuri eginiko otseintzea zergarri da ; eztautzut esan guzurrik, eztautzut egin okerreko gauzarik, marmarka barik egin dautzut otseintzea : zuk urtebete osoa laburtuko zeunstala esan zeunstan.

Posper'ek. — Aiztu egin ete yak nik zelango neke-lorretatik yarei indudan ?

Ariel'ek. — Ez.

Posper'ek. — Bai, aiztu yak iri ; eta ik askotzat dok gezal sakoneko lupetza zapaldu izana ; ipar-axe zorrotzaren ganean arin ibiltea ; lurraren zanetan nitzako lan egitea, lurra leiez estalita dagonean.

Ariel'ek. — Ez, yaun.

Posper'ek. — Guzurra diñok, zer oker orrek ! Iri aiztu egin yak arako Saikoratz atso sorgin zikina, adinagaitik eta inñori eutsan ikusi-ezinagaitik uztaituta egoana ? Aiztu egin ete yak ?

Ariel'ek. — Ez, yaun.

Posper'ek. — Bai, iri aiztu yak : Non yaio zoan a ? Itz egik ; esaidak.

Ariel'ek. — Algeria'n, yaun.

Posper'ek. — Ara ! An ete zoan ? I zer izan azan ilean bein azaldu bear dauskat, iri aiztu egiten yak-eta. Saikoratz sorgin askarri ori, bere okerreri ugariekaitik eta gizakien belarrietarako itzalegi dirian sorginkeriekaitik, ik euk dakianez, Algeria'tik erbesteratuta egin yoen ; berak eginiko zertxo bategaitik ez yeutsoen kendu bizia : eztok au egia, ala ?

Ariel'ek. — Bai, yaun.

Posper'ek. — Itsutu-aginiko atso sorgin ori onaxe ekarri yoen bere umeakin, eta emen itxi yoen itxas-ontzi-mutilak : i, ire burua aintzakotzat dokan nire yopu ori, i aldi atan aren yopu intzan ; eta i aren agindu zakar eta iguingarriak egiteko iratxo minberatiegia izan-da, ik aren agindu andiak egin gura ez-ta, aren otsein indartsuagok ari lagunduta, i ak bere asarre gorrian ler birrintzatuan sartu induan ; eta birrintza atan sartuta elorrioak ikusten egon intzan i amabi urtean ; a bitarte orretan il eta i an itxi induan : i an engoan urrumea ta negar-arrantzaka axe-error-tako txirrinkeak bira egiten dauen baño sarriago : ganera, aldi atan izaro onetan ez yegoan beronen edergarritzat gizon-antzeko izakirik, ak emen eginiko seme sorgin-kume nazkagarria ez besterik.

Ariel'ek. — Bai : Kaliban aren semea.

Posper'ek. — Gauza argia axe ! A, arako Kaliban, nik orain nire otseintzan dodana. Ik euk dakik ondoen i nik zelango elorriotan aurkitu indudan : ire negar-intzirriak otsoai be ausi eragitekoak eta artz asarreen biozetan be sartzekoak zoazan ; ire elorrio gorria gaiztetsiai ezartekoa zoan eta Saikoratz'ek berak be ez yeukan alik berak egina deusezteko ; nire antzea, nire almena izan zoan ori egin ebana, ni ona eldu ta lerraren arako birrintzea nasaitu ta i azkatu induana.

Ariel'ek. — Nire eskerrik beroenak zuri, ugazaba.
Posper'ek. — Marmarka ekin ba'dagiok ekin, areitz birrintza-
tuko yoat ta aren erraietan zotza lez sartuko aut, an negar-arran-
tzaka amabi negu egin arte.

Ariel'ek. — Azketsi, ugazaba : zure aginduari erantzungo
dautsat, eta nire iratxo-egikizunak zeatz eta zoli egin.

Posper'ek. — Egin olantxe ; eta egun bien buruan opor
emongo dauskat.

Ariel'ek. — Nire ugazabaren zindoa ! Zer egingo dot ? Esan
zer ? Zer egiteko nozu ?

Posper'ek. — Oa, artu egik itxas-neska-antza ; ez agiala
neuk ez bestek ikusi al ; adi ikusi-ezin beste edozeonen begi-
belarrintzako. Oa, artuik antz ori ta ator ona beragaz : alde zoli
emendik ! (*Alde dagi Ariel'ek.*)

Itzarri akit, biotz zindo, itzarri akit ! Lo ondo egin don ;
itzarri adi !

Mirande'k. — Zure itzaldiaren iñondikoak sargoriarena egin
dau nigan.

Posper'ek. — Aztindu egin aztuntasun ori ; tirun ; gure yopu
Kaliban, egundo erantzun txeraturik emon eztauenan ikusten
yoango gonazan.

Mirande'k. — A zital utsa da, yaun, ez yat gogoko a begi-
ratzerik.

Posper'ek. — Baña dalakoa dala, a izteko ezkara : ak egi-
ten dauku sua, a yoaten da gutzako egurretan ; eta ondo dator-
kuzan otseintzak egiten dauskuz. Eee ! Yopu ! Kaliban ! Lupetz
ori ! Itz egik.

Kaliban'ek. — (*Barrutik*) Egurrik asko dago barruan.

Posper'ek. — Urteik, mutil ; beste zereginik dok itzako :
urten egik, txaberama (*turtube*) orrek ! Eure bizian urtengo ete
dok ?

ARIEL aurrera ostera be, ur-neska-antzez.

Agerpenaren zoragarri ! Nire iñondiko Ariel, entzuik.

Ariel'ek. — Ene yaun, egingo dot. (*Alde dagi.*)

Posper'ek. — I yopu zitaltsu ori, txerrenak berak ire ama-
gan sortu orrek, urten egik !

KALIBAN aurrera.

Kaliban'ek. — Nire ama zanak egundo iztoki usteletik bela-
egakiz batuko iñontz galgarria bestean galgarria etorriko al da
zuon bion ganera ! Egoe-sarkaldetiko axeak putz egingo al dau-
tzue ta zuon narru osoa baba-zorroz bete.

Posper'ek. — Orregaitik, baiki, arratseon ik zanbatuak izan-
go dozak, saietsetako zastadak, i arnasarik artu-ezinik eukiko abe-
nak ; iratxoak, lan egin al daben gaualdi osoan, iri euren egite-
koak etentzaka egingo dauskez ; ik erlategiko abaiak baño zas-
tada geiago izango dok, eta zastada bakotxa erlauntzeko abaiak
egin dabezan erleena baño mingarriago izango dok.

Kaliban'ek. — Bazkaldu egin bear dot. Izaro au neurea
dot, nire ama Saikoratz'ek niri emona ta zuk niri kendua. Zu
ona lenengoz etorri zintzanean, zuk eskua estutu zeunstan, eta
aintzakotzat artu ninduzun ; barruan aletxoak ebazan ura emo-
ten zeunstan ; eta egunez eta gabaz argi andiagoo ta txikiagoo
egiten daben zeren izenak irakasten zeunstazan : eta aldi atan
nik zu maite zindudan, eta izaro onek dauzan zer on guztiak era-
kutsi neuntzuzan : iturri ozkirri ur-gardenak, oxin gezaltsuak, lur
emorrak eta antzuak : añena ori egin neban onentzat ! Saiko-
ratz'en lilurapen guztiak, kunkunak, kakarraldoak, saguzarrak
zuon ganera etorriko al dira ! Eta izan be, bein nire buruaren
errege izan au nozue zuon bendeko bakar ; eta emen naukazue
aitz gogor onen barruko artzuloan, izaro enparaua zuontzako
niri kenduta.

Posper'ek. — Yopu guzur-ontzi ori, bizkarrekoak, ez txera
onek eragiteko ori ! i sats utsa izan-arren, nik i gizoni dagokio-
nez artu aut beti ; eta neronen txabolan euki aut, i nire alabatxo
onen entzute ona nolán loituko asmoetan ibili arte.

Kaliban'ek. — Ara ! Ara ! Egin al nenduan egin ! Zuk ez
zeunstan itxi, ostean Kalibandarrez bete izango neban izaro au.

Posper'ek. — Yopu askarri ori ; edozein okerrerirako gai
izan-da, ezetariko ontasan atzik ezin artu izan dokan ori ! Nik
nekearen nekez irakatsi neuskan itz egiten, aldien zer bat edo
beste irakasten neuskan : basati orrek euk zer esaten enduan
be ez enkianean, orren ordez abereen urrengo azan orrek naste-

borrasteka itz egiten enduanean, ire asmo-eretxiak erazagututeko eurai nik itzak emon naieuntsezan ; baña ire leñu ziztriñak, ik ikasi ikasi-arren, an yeukan izaki onek ezin izan dauena : orre-xegaitik baztertu indugun i, ik euk irabazita, artzulo onetara, ik espetxea baño txarragorik irabazi izan-arren.

Kaliban'ek. — Zuk izkuntzea irakatsi zeunstan ; eta nik ortik atera dodan onureak bost ardura daust ; elgorriak ondatuko al zau zuk niri zure izkuntzea irakatsiagaitik.

Posper'ek. — Sorgin-kume, alde emendik ! Ekarri egistak errekina barrura ; abil arin ; i beste zer baterako intzake onena. Sorbaldak eragiten dozak, zital orrek ? Nire agindurik egin ez, naiz gogoz bestera egin ba'dagik, burdin-kako ugertuakaz orraz-tuko aut burutik beraño ta ire azurrak be mindu : arrantza era-gingo dauskat, ire durunduaz piztiak be ikaratu-alekoak.

Kaliban'ek. — Ez, ez olangorik, arren ! Esaneko izango naz : (*Beretzaño*) Orren antzea andia be andia da. Orrek nire amaren yainko Setebotz be berorren eskuko leuke ta berorren otsein egin.

Posper'ek. — Orrezkero, yopu, alde emendik ! (*Kaliban'ek* alde dagi.)

Ostera be *ARIEL* ikus-ezina aurrera, yoten eta abestuten ;
PERDINANDA aren atzetik.

Ariel'en Abestia

Erdu ondartza bellegiotara,
Eskuak alkarrri estututera :
Zuon txera-munak eginezkero,
(Urutu basatiak ixil dauz, gero),
Zapaldu lurra an-or-emen txairo :
Iratxo maiteok, eroan zama gogaro.
Entzun, entzun !
Pur-pur, *bau, bau* (*meatz*)
Txakur zañak ausika :
Pur-pur, *bau, bau* (*meatz*)
Entzun, entzun ! Ba-dantzut
Ollar arro-ots indartsu ;
Gedar dagi kukurruku.

Perdinanda'k. — Non arrano ete da eresi au ? Eguratsean ala lurrean ? Ixildu da : eta egiz izaro onetako yainkoren baten-tzako da, urrean. Ni aulki-ganean yezarrita, nire aita erregeri buruz ostera be negarrez nagoala, eresia nire aldamera zear uren ganetik tarraz yoan da ; bere ots gozoagaz arein asarrea ta nire oñazea arinduten : orrexegaitik nik yarraitu egin dautsat, edo obeto esan, berak eroan nau ni : Baña yoan da. Ez, ostera be ba-daragoio.

Ariel abeska.

Bostetan sei oin oso bean datza zure aita ;

Aren azurrak koraldak dira :

Aren begiak orain pitxi dira :

Arena zan oro, ezta deusezturik, nork nai-ta,

Itxasoko zerbaitera aldaurik da ;

Zer eder-eder iñondikotuik da.

Itxas-ur-neskak aren il-yoaleak ordu oro yoten dabez :

Entzun ! orain ba-dantzudaz, yo *din, dan*, yoale, **errukibage.**

Yo ileta, *din, dan*, gau ilun ilunbetsuan atertzake.

Perdinanda'k. — Abestitxoak nire aita itoa oroitzen dau : — Au ezta ilkorren arloa, ezta lurak dauen abestirik : — orain nire buru-ganean dantzut.

Posper'ek. — Aurreratu zure betazal txintxirridunezko kur-txoinak, eta esan zer ikusten dozun an aragoan.

Mirande'k. — Zer da a ? Iratxoen bat, ala ? Yaun, aren begirakunea ! Sinistu egidazu, yaun, ak ibilkera txairo-lerden dau : baña izan, a iratxo da.

Posper'ek. — Ez, neskato ; ak yan eta lo egiten yon, eta ak gureak langoxe oarmenak yozan. Ik dakusanan zer lerden-eder a be ontzia urperatzean an izana don, eta edertasuna yaten dauen naibage-orbantxorik ezpa'leu aldean, ik lagun ederra dala esango eunkenana : ak bere lagunak galdu yozan eta aldarrai yabiln euren billa.

Mirande'k. — A yaungoikozko zeren bat dala esan nengike nik ; izaki ain zindorik egundo eztot ikusi-ta.

Posper'ek. — A nik eragin-ala yoaten da batera ta bestera ;

iratxo, iratxo lirain ! Egun bien buruan azkatuko aut onegaitik. (Bere *kitean*.)

Perdinanda'k. — Egi-egiz doñuok yoten yatzuzan yainkono ! Indazu, nire otoiak yakin dagiala zu izaro onetan egotez zagozarentz ; eta irakatsi dagistazula nik nolan eroan emengo bizitzea : nire lenengo eskaria ta azkenen oguzten dodana, itzal ori ! zu neska zarean ala ez da.

Mirande'k. — Ni itzalik enaz, egi-egiz neska bai, ostera.

Perdinanda'k. — Neronen izkuntzea ! Ene Yaungoiko ! Izkuntza au egiten dabenen artean neu naz onena, berau egiten dan tokian ba'nengo egon.

Posp'er'ek. — Ostera ! Onena ? Napoli'ko erregeak entzun beiskian ori ! Orduan engoke i ona !

Perdinanda'k. — Oraintxe nazan zer bakarra, ta zu Napoli'ri buruz itz egiten entzunaz arrituta nagoana nintzateke ta nengoke ! Orrek entzuten daust ! eta orrek entzuten daustalako nik negar egiten dot : neu naz Napoli ; arrezkero egundo izperarik eztaben nire begiak nire aita errege itoten ikusi nebana.

Mirande'k. — Ene ! Orren errukarri !

Perdinanda'k. — Bai, benetan, eta aren yaun guztiak be bai : Milano'ko dukea ta aren seme adoretzu, birki zana.

Posp'er'ek. — Milano'k dukeak eta aren alaba adoretzuagoak benderatu engikie i orain, orretarako aldi egokia ba'litzok (Bere *kitean*); alkar ikusiaz bat yosi dautsez orreik alkarri begiak : Ariel samur, nik i onegaitik azkatu egingo aut ! — Itz bat, yaun ; zuk zure buruari okerren bat egin dautsazunaren bildur nozu : itz bat.

Mirande'k. — Zer dala-ta egiten dau nire aitak itz orren latz ? Au da nik egundo ikusiko gizonetatik irugarrena ; egundo lenengoz aspera eragin daustana : Erruki, eragin nire aitari, nire lerearen alde yarri daiten !

Perdinanda'k. — Ara ! neska ba'zara, ta zure maitasuna yoana ezpa'da, Napoli'ko erregeno egingo zaut nik.

Posp'er'ek. — Geldi or, yaun ; itz bat geiago. — Orreik bata bestearen bendeko dira ; baña nik bertatiko arazo au ardu-raz erabagi bear dot, arinegi irabazteak ordaina arindu eztagian (Bere *kitean*). — Itz bat geiago ; nik diñodanari adi egoteko

agintzen dauskat : ik irea eztan izena iñori ostu dautsak emen ; eta ik ire burua barrandaritzakoan yarri dok izaro onetan, au niri, emengo yaun eta yabe nazan oni, kentzeko.

Perdinanda'k. — Ez, ostein enintzateke gizon.

Mirande'k. — Orrena lango yauretzen ezin izan leiteke olan-gorik. Txerrena olango etxe ederren bizi izanezkero, gauza onak arekin biziten aleginduko litzatekez.

Posp'er'ek. — Yarra egidak (*Perdinanda'ri*). — Zuk ez egin itzik onen alde ; au azpiyale da. — Ator, ire esku ta oñak alkar-ri lotuko yautsedaz : itxas-ura izango dok edaritzat ; ire yanaritzat, ur gozotako txirlak, zustar zimelak eta ezkur-txapelak izango dozak : Yarra.

Perdinanda'k. — Ez ; nik olango deiari entzungero egingo dautsat, nire arerioak ni benderatu arte. (*Ezpatea ateraten dau.*)

Mirande'k. — Aita laztan, ez egizu erabili ori orren zakar, ori zindo ta bildur bako da-ta.

Posp'er'ek. — Zer ? Astoak astazainari « arre » ta idiak itzaiari « aida » ? Olangorik ! Zorroratu egik ezpata ori, azpi-yale ; nik i onegaz izkillo barik itxi-ezinik, eta iri ire izkilloa lurrera egotzi-az-ezinik ez yoat-eta.

Mirande'k. — Otoi, arren, aita !

Posp'er'ek. — Alde emendik ; ez eskegi zure burua nire soñekoetatik.

Mirande'k. — Yaun, erruki zadiz ; neuk erantzungo dot orregaitik.

Posp'er'ek. — Ixilik ! Itz bat geiago esan egin, bai, ta agi-rika egingo dautsat. Zer ? Guzurtiren aldeko ? Ixilik, gero ! Ik ori ta Kaliban, ez besterik ikusi ez-ta, orren antzeko besterik ez-tala uste don : neskatoaren zoroa ! Gizonik geienentzat au be Kaliban don eta aik onen aldean angeruak dozan.

Mirande'k. — Orrezkero, nire gurariak apal-zirtzilak dira ; nik eztot au baño gizon oberik ikusteko leiarik.

Posp'er'ek. — Tiruk ; egik agindua (*Perdinanda'ri*) ; ire ki-riok ostera be euren umearoan yagozak, eta ez yoek kemenik.

Perdinanda'k. — Olangoxeak dira izan be : amesetan lez nire kemen-adoreak lotuta dagoz. Nire aita galdu izana, oartzen dodan nire makaltasuna, nire adiskide guztiak itxas-ondora yoan

izana, edo-ta bere bendea nauen gizon onen zemaia, arinak baño ez yataz, ire espexetik egunean bein neska au ikusi al izanezkero : munduko beste okolu guztiak eurentzat izan dagiezala gizon azkeak ; lekuri asko dot nik olango espexean.

Posper'ek. — Ondo doa gauzea : — Tiruk. — Ederto egin dok, Ariel bikain ! — Yarra egidazue (*Perd. ta Miran.'ri*).

Entzun egik ik eginen ganera zer egin bear daustakan (*Ariel'eri*).

Mirande'k. — Zagoz nasai ; nire aita bere itzak iragarten daben baño izakera obeduna da ; orain ari urtena, aren ekan-dua ez, besterako da.

Posper'ek. — I mendiko axeak baxen azke izango az : baña orrezkero agindua zeatz-zeatz bete egik.

Ariel'ek. — Zeatzik zeatzen.

Posper'ek. — Ator, yarra egidan : ez egin itzik orren alde. (*Alde dagie.*)

II EKITALDI

I Agerleku. — *Izaroko beste arlo.*

ALBONTSA, SEBASTEN, ANDONI, GONTZAL,
ADIRAN, PANTZESKA ta abar aurrera.

Gontzal'ek. — Arren, jaun, izan txitxari : Ba-dozu (*eta bai guztiok be*) pozkarririk ; galdu eztoguna galduaren aldean andi da-ta : gure lor-iskia guztiena da, edo askorena beintzat ; egunoro dabe itxas-gizonen baten emazteak, saleroste-ontzi-yabeak, eta salerosleak berak be gure gaia bera lortzat : milloien artetik be gitxik alde egin daikie guk lez : orrezkero, jaun on, ezarri zur alkarren ondoan gure lorra ta gure pozbidea.

Albontsa'k. — Ago ixilik, arren-bai-arren.

Sebasten'ek. — Aiko, orrek bere buruko zorroztasun-erloiu-ari arilduten yaragoiok, eta nozik-bein txilinak yoko yok.

Gontzal'ek. — Jaun...

Sebasten'ek. — Bat. Esan.

Gontzal'ek. — Datorkon lorrari barruan eragon eta ereiten yakonean, daragionari etorri datorko...

Sebasten'ek. — Urre-imiña.

Gontzal'ek. — Eztiñot nik imiñik, biotz-minik baño ; untzetik alborago yo dozu.

Sebasten'ek. — Zuk bai nik uste baño untzerago yo dozula.

Gontzal'ek. — Orrezkero, ene jaun...

Andoni'k. — Ostera be ! Orrek yok azur-bakoa geldi euki ezin gorria !

Albontsa'k. — Arren, ez egik olan alperrik erabili ire miña.

Gontzal'ek. — Tiruk, ba, bego : baña orraitño be...

Sebasten'ek. — Orrek izketan eragoko yok.

Andoni'k. — Ori ala Adiran, bietarik zein asiko ete dok lenen kukurrukuka, zeinek obeto egin kukurruku, tema on bate-gaitik ?

Sebasten'ek. — Ollar zarra.

Andoni'k. — Ollar gaztea.

Sebasten'ek. — Egina : zer tematuko ?

Andoni'k. — Barre-karkaxa.

Sebasten'ek. — Nor geiagoketa.

Adiran'ek. — Izaro onek basamortu-irudia izan-arren...

Sebasten'ek. — Ja, ja, ja !

Andoni'k. — Orrezkero, zuk ordaindu dozu.

Adiran'ek. — Iñor bizi ezin leitekeana, ta larri-larri bertora elgatxa...

Sebasten'ek. — Orraitño...

Adiran'ek. — Orraitño...

Andoni'k. — Ezin gelditu izan zan bertoratu barik.

Adiran'ek. — Izaro onek, edozelan, izakera me, samur bigunekoak izan bear dau.

Andoni'k. — Orrako izakera neska bigun yatzun.

Sebasten'ek. — Bai, eta me be, orrek orren yakintsu esan dauenez.

Adiran'ek. — Eguratsak emen leun-leun eta firi-firi putz egiten dausku.

Sebasten'ek. — Biriak, eta eurak ustelduta baileuz.

Andoni'k. — Edo-ta oxin usteletiko lurrunez andurtua babiliz.

Gontzal'ek. — Emen edozer da biziaren aldeko.

Andoni'k. — Egiz, bizigarririk ba'lego egon.

Sebasten'ek. — Orretarikorik arean bez, edo gitxi-gitxi dago.

Gontzal'ek. — Bedarrak bai emoten dauela guri ta mardul :

orren musker !

Andoni'k. — Izan be lurra gorri agiri da.

Sebasten'ek. — Musker-iskitxo dauela.

Andoni'k. — Orrek ez dau galduaren oroipen andirik.

Sebasten'ek. — Ez ; orrek egia guztiz okerretara artu dau.

Gontzal'ek. — Baña inondikorik inondikoen auxe dozu (*eta larri-larri sinistu-ezineko yatzu*)...

Sebasten'ek. — Olangoxeak dira aintzakotzat doguzan beste inondikotasun asko be.

Gontzal'ek. — Gure soñekoak, bein itsasoko urez busti-bustirik egonak izan-arren, barri-barri ta orratzetik arako dirudie ; gezalez zikinduek barik margoztu-barrien antza emoten dabela.

Andoni'k. — Orren sakel batak beintzat itz egin al ba'leu, ez ete leuke esango orrek guzurra diñoala ?

Sebasten'ek. — Bai, edo ostein orrek diñoana osoan itzulietara artuta sakelean sartu.

Gontzal'ek. — Nire eretziz, gure soñekoak Apirka'n, erregeren alaba lirain Karibele Tunixa'ko erregekin ezkondu zanean, lenengoz yantzi genduzanean baxen barri dagoz.

Sebasten'ek. — Aik eztegu gozoak izan zirian, eta etxera koan ondo ibili gintzan.

Adiran'ek. — Tunixa'k eztau egundo izan euren erregenoa ederrez bardintzekorik.

Gontzal'ek. — Ez Dide alargunaren aldia-ezkero.

Andoni'k. — Alargun ? Utikan ! Nolan alargundu zoon ? Dide alargun !

Sebasten'ek. — Eta zer Enea be gizon alarguna zala esan izan ba'laiok ? Yaun on, ori euk zetara artu dok !

Adiran'ek. — Dide alargun zala esan dok ? Ik ari buruz ni buruari azka yarten nok : a Kartago'koa zoon, ez Tunixa'koa.

Gontzal'ek. — Tunixa au len Kartago izana da.

Adiran'ek. — Kartago ete ?

Gontzal'ek. — Bai, Kartago zoon.

Andoni'k. — Orren itza arako arpa miraritsua (2) baño geiago dok.

Sebasten'ek. — Orrek arresia eragi yok eta bai etxeak be.

Andoni'k. — Zer gauza ezin errettuko ete yok orrek urren ?

Sebasten'ek. — Nire ustez orrek izaro au sakelean eroango yok etxera, ta bere seme-alabai emon sagartzat.

Andoni'k. — Eta aren aziak itxasoan ereinda, izaro barriak sortu.

Gontzal'ek. — Bai ete ?

Andoni'k. — Laster, gero !

Gontzal'ek. — Yaun, ora'n erregeno dan zure alabearen ezteguetan Tunixa'n zirian aña barri dirudiela gure soñekoak esaten daragoiogu guk.

Andoni'k. — Eta ara egundo eldu zirianetatik inondikoenak.

Sebasten'ek. — Zirtzildu, arren, Dide alarguna.

Andoni'k. — Ba ! Dide alarguna ; bai, Dide alarguna.

Gontzal'ek. — Ez ete dago nire yakea nik lenengoz erabili nebanean bestean barri ? Gitxi gora-bera esan gura dot nik.

Andoni'k. — Gitxi gora-bera orregaitik arrantzuan egin bear izan gaienduan.

Gontzal'ek. — Zure alabearen ezteguetan erabili nebanean, ala ?

Albontsa'k. — Itzok nire entzumenaren urdalleari okada eragiteko birrinduten daustazuz belarrietan : Ez al neu nik ara egundo alabarik ezkondu ! nire semea andik onakoan galdu da-ta ; eta nitzako, bai alabea bera be, Itali'tik ain urrin yoan danezkero, nik a egundo geiago eztot ikusiko-ta. Napoli ta Milano'ren nire oñordeko yabe ori, i inondiko arrainek izan au bere yakitzat !

Pantzeska'k. — Yaun, ba-leiteke a bizirik izatea ; nik a uru-

(2) Shakespeare'k emen diñoanetik edonori burutanduko yako, Kartago'ko uri, arresi ta etxeak arinago eragiteko, Dide'k arotz eta arginai « arpa » deretxon ereskinaren otsa yoten eutsela. Olangorik ezta aipatzen Birgili'ren Encarenean. Ze arpa miraritsuri buruz ete daragoi ?

tuekaz burruka ta arein bizkar-ganean izartolaka ikusi neban ; ak ostikoz ura yo, aren arerria baztartu, ta aurrera etorkozan urutu arro-yagiari bere bularra emoten utsen ; ak bere buru adoretua urutu mukerren ganean eukiten eban, eta bere burua itxas-ertzerantza eroateko arraun-ordeko aren beso sendoak egiten eben ; ari lagun egiteko bailitzan, burua makurtzen eutson itxas-ertzera ; nik neuk eztot ezpairik a legorrera bizirik eldu zanenik.

Albontsa'k. — Ez, ez, arenak egin dau.

Sebasten'ek. — Yaun, galtze au dala-ta zuk zure buruari eskerrak emon bear zeunskioz ; zuk zure alabearen bidez gure Europa onetsi baño, Apirkarrari emonda, galdu gurago izan dozun orrek ; a beintzat an dago zure begien aurretik urrin ta bere zori txarra begietako urez bustiteko eskubiderik askogaz.

Albontsa'k. — Ago ixilik, arren.

Sebasten'ek. — Gu guztiok zure aurrean belauniko yari gintzan, eta osteango bidez be eska ta eska egon gintxatzuzan ; eta a bera be, lotsa ta esaneko izatearen bitartean yarrita, agearen zein aldetan sakatu ta berantza eragingo egoan. Zure semea betiko galdu ete dogunaren bildur naz : Milano ta Napoli'k arazo onetan andera alargun geiago dabe guk euren pozkarrizat gizonetan emongo dautsegun baño : zeurea da errua.

Albontsa'k. — Izan be, orrexegaitik au galtzer'k andiena da.

Gontzal'ek. — Ene yaun Sebasten, zuk diñozun egia gordinesia da, ta onetarako aldia be ezta au ; zu zauriari azka zabiltz, osakaia ezarri bear litxakionean.

Sebasten'ek. — Ondo be ondo.

Andoni'k. — Eta bai osa-ebaketeari oso egoki dagokion lez be

Gontzal'ek. — Yaun on, zu odeitsu zagozanean, guk guztiok eguraldi txar dogu.

Sebasten'ek. — Egualdi txar ?

Andoni'k. — Oso txar.

Gontzal'ek. — Izaro onetan lur landu-arlorik ba'neu, ene yaun...

Andoni'k. — Asun-azia ereingo leuke orrek.

Sebasten'ek. — Naiz lapatxak, naiz zigainak (*mamukioak*).

Gontzal'ek. — Eta bertoko errege ba'nintz, zer egingo ete neunke ?

Sebasten'ek. — Mozkortu ez beintzat, ardaorik ezagaitik.

Gontzal'ek. — Erriari nik gauzak okerretara egingo neunke : eta izan be, nik salerosteari eneunskio lekuri emongo ; agintariarik izenik bez ; idatzikorik ezautu be elizateke egingo ; ezetariko otseintzarik ez, ez aberatsik, ez txirorik ; ez egune-rik, ezta ondorengotzarik be ; lur, alor eta maastietan ezetariko mugarik ez ; ez da erabiliko metalik, gari-artorik, ardaorik, naiz oriorik : ez ezetariko lantegirik ; gizon guzti-guztiak arkolo ; eta bai emakumeak be ; baño erruge ta garbi : nagusitasunik ez.

Sebasten'ek. — Eta ori ta guzti be ori orko errege litzatekek.

Andoni'k. — Erri orren atzenari asierea aitzu egin yakok.

Gontzal'ek. — Izamenak berez, izerdi ta lanbage, emon daikuan oro guztientzako izango da : azpikeri, zitalkeri, ezpata, aztamakil, aitzo, su-izkillo, naiz ezetariko beste taramankulurik eneunke izango nik ; izamenak berak, ostera, bere kitetik emongo leuke edozetariko ugaritasuna, edozetariko gonburutasuna erri errugeari yaten emoteko.

Sebasten'ek. — Ezkontzarik be ez ete orren bendekoen artean ?

Andoni'k. — Garaurik bez, gizon ; guztiak alperkeri utsean ; emagalduek eta lotsabakoak be bai.

Gontzal'ek. — Nire yaugoa olangoxe osoa litzateke, arako urrezko aldiak lotsatuta itxiko leukezana.

Sebasten'ek. — Gora i errege ori !

Andoni'k. — Gora ta gora Gontzal !

Gontzal'ek. — Aitu ete daustazu, yaun ?

Albontsa'k. — Yaungoikoa-arren, ez geiagorik : ik esaten daustakana aletz utsa dok.

Gontzal'ek. — Egia diño zure nagusitasunak ; eta esana esan ba'dot, edozein umekeriri barre egiten dautsoen biri gilberadun yaunoi barre-bide emote-arren esan dot.

Andoni'k. — Guk zuri zeuri egin dautzugu barre.

Gontzal'ek. — Eta ni ergelkeri txitxariotan ezer enaz zuontzako ; orrezkero, yarraitu baño eztozue, ta utsari barre egin ostera be.

Andoni'k. — Orrek bai yo gauzala bete-betea.

Sebasten'ek. — Bai, bera beteana lurrera yausi ezpa'litz.

Gontzal'ek. — Zuok gizon zindo odol-beroak zarie : zuok iretargia bere bidetik aterako zeunkie, bost astea an aldatzeke iraugo ba'leu.

ARIEL, ikus-ezirik, aurrera, eresi bena yoten.

Sebasten'ek. — Orixe egingo geunke egin be, ta gero sagu-zarrak oratzen urten.

Andoni'k. — Ez, ene yaun on, ez asarratu.

Gontzal'ek. — Ez, nire itza, olangorik ez ; nik nire bereizgoa eztoz yarriko galbidean orren errez ; motel be motel nago-ta, lotan nagoala be barre egingo ete daustazue ?

Andoni'k. — Oa lotara, ta entzun egiskuk.

(Albontsa, Sebasten eta Andoni ez, beste guztiak loak artuta.)

Albontsa'k. — Zer, guztiak orren arin lotan ? Nire begiak euren itxiaz nire oldozpenak be itxiko al dabez ; orixe egiteko leiea dabe.

Sebasten'ek. — Arren, yaun, esku-erakutsi aztun ori artu egizu : ori naibageari gitxitan etorten yako ; eta datorrenean aringarri da.

Andoni'k. — Guk biok, ene yaun, yagongo zaugu zu, zu atsedean artzen zagozan artean, ta zu begiratu okerrik etorri eztakezun.

Albontsa'k. — Eskerrik asko : itzalez nago aztun...

(Albontsa loak artu dau. Ariel'ek alde dagi.)

Sebasten'ek. — Iñondiko logurea egin da orren yabe !

Andoni'k. — Ori lur onetako eguraldiak dakarrena da.

Sebasten'ek. — Orrezkero, zegaitik eztautsez alkarrerri lotzen gure betazalak be ? Ni enaz logura.

Andoni'k. — Ez ni be ; nire gogo argi ta bizkor dago. Orreik guztiak batera yausi dira, alkar aituta lez ; orreik tximisteak yota lez itzuli dira lurrera. Ze indarrek eratsi ete dauz,

Sebasten zergarri ? Eneee ! Ze indarrek ? Ez geiagorik. Eta orraitino, zuk zer izan bear zendukean zure mosuan dakusadala dirudit : eretia deiez dagotzu ; eta nire irudimen bizi-sendoak buruntza dakus zure buru-ganera yausten.

Sebasten'ek. — Zer itzarrik ete ago ?

Andoni'k. — Enozu entzuten itz egiten, ala ?

Sebasten'ek. — Bai ; eta egin-eginean be erdi-lotan dagoanaren izkerea darabilk ; eta ik lotan agoala itz egiten dok : zer esan dok ? Iñondiko atsedena dok au, begiak zabalik, zutunik, itz eginez, ibiliz lo egitea, ta orraitino arria lez lo.

Andoni'k. — Sebasten zindo, zuk zori onari lo egiten ezeze, ilten izten dautsazu ; begiak itxi-idigi egiten dozuz lotan.

Sebasten'ek. — Ik igarri-igarrian lo-arrantzak egiten dozak ; ire lo-arrantzok zerbait iragarten yoek.

Andoni'k. — Ni oi dodan baño benago nago : zuk be onantxe egon bear zeunke, niri yaramonik egitekotan ; eta au egitekotan, zuk zure burua dana lango iru egingo zeunke.

Sebasten'ek. — Ondo yagok, ni ur geldi nok.

Andoni'k. — Neuk irakatsiko dautzut ibilten.

Sebasten'ek. — Egidak orixe : atzeraka yoaten nire aurrekoen nagikeriak irakatsi yaustak.

Andoni'k. — Ara, zure elburuak zelango txera argia egiten dautzun bakarrik ba'zenki, zuk olan irri egiten dautsazun bitartean ! Billustuago ta yantziago egiten dozula ba'zenki ! Atzeraka doazan gizonak, euren bildur nai nagikeriagaitik, geienetan orre-xegaitik barruren sartzen dira uretan.

Sebasten'ek. — Yarraik, arren ; ire begi ta mosuen ereikerak iri zerbaitet urten bear dauskala iragarten yoek ; eta ire umegintza orrek itzalezko ume-minetan au i, erdira-ezinik.

Andoni'k. — Olantxe da, yaun ; oroimen makaleko gizon onek, lurperatu daginean be, orain baño oroimen gitxiago izan-go eztauen gizon onek oraintsu erregeri aren semea bizirik dala larri-larri sinistuzo-arren (eta izan be gizon au iñori sinistuzo-teko bakarrik da) : a eztala ito, ezina da, emen lotan dagoan au uger dabilela letxe.

Sebasten'ek. — Nik ez yoat a ito-ezaren itxaropenik.

Andoni'k. — Ara, arenik ez, baño zuk beste zerbaitena do-

zun itxaropena bai ba-dala andia ! Bide atatik itxaropenik ez izatea, beste bidetik itxaropena lango itxaropena izateko da, andiagorik asmau be ezin leike asma-egarririk andiena izanda be ta, begi-itxi idigiz bakarrik an idoroko dauela eskier (*seguru*) dago. Nikin batera autortuko ete dozu Perdinanda ito dala ?

Sebasten'ek. — Arenak egin yok.

Andoni'k. — Orrezkero, esaidazu, nor da aren urren Napoli'ren yaun eta yabe ?

Sebasten'ek. — Karibele.

Andoni'k. — Tunixa'ko erregenoa ; gizonaren bizia baño amar legoa arago bizi dana ; eguzkia bidari izan ezik Napoli'tiko gutunik ezin artu daikeana (eguzkiko gizona orretarako geldoegi da) yaioparria kazkondu ta arpegian bizona orretarako galdoezi arenetik gentozala itxasoak gu guztiok iruntsi ginduzana, naiz ta gero gutariko batzuk itxasoak okadaka atzera egotzi izan ; eta ori dala-ta, ori egitekoaren aurreko baño ez tala, gu egikizuna egiteko gara ; zer etorriko, zure ta nire eskuetan dago.

Sebasten'ek. — Ze arazo dok au ? Zer diñok ik ? Egia dok, nire anaiearen alabea Tunixa'ko erregeno dok, eta orrezkero Napoli'ren yabegai ; eta lurralde bien bitartean ba-yagok bitarte onik.

Andoni'k. — Lur-bitarte orretako beso bakotxak « zelan neurtuko gu Karibele'k Napoli'ra bidean ? » gedar egiten dauela dirudi. — Zagoz zu Tunixa'n eta Sebasten itzarriko al da ! — Dagigun, orreik benderatu dauzana eriotzea dala ; ba, orrezkero elegokez dagozan baño txartoago : Ba-dago Napoli'n lotan dagoan orrek bestean ondo yaurri leikeanik ; bai Gontzal au bestean itz-dario ta itz-ontzi izan leitekezan yaunik asko be ; nik neuk be egin daiket nire burua bela barritsu, orrek bestean sakon itz egingo leukeana. Eneeee ! zuk ba'zenduz nik dodazan asmoak ! Lo au bai ba-letorkela iñozkorik ondoen zure aurrerapiderako ! Bai ete dakizu nik zer esan gura dodan ?

Sebasten'ek. — Baietz uste yoat.

Andoni'k. — Eta zuk zeuretik zer eskeintzen dautsazu zure zori onari ?

Sebasten'ek. — Nik gogoan yoat ik Posper ire anaiearen lekua bete enduala.

Andoni'k. — Egia : eta begira, ez ete datorkidaz ondo be

ondo yantziok ? Lenago baño egokiago ta beteago : nire anaiearen oseinak aldi atan nire kide ta lagun ziran, orain nire gizon dira.

Sebasten'ek. — Baña, zure yakinkidetzeta...

Andoni'k. — Bai, yaunn ; non da orrako ori ? Ozpel-arrakal ba'litz, oñetako bigun-nasaiak yantziatzoko leuskidaz : baño nik ez tot oartzen nire bularrean olango yainkorik ; ni ta Milano bitartean legokezan ogei yakinkidetzeta be gozatu ta urtu leitekenez ni kezkatu baño len ! Emen datza zure anaiea, ta ez berau ganean dauen lurra baño ohea, orain dirudiana ba'litz : eta nik ori nire esaneko galtzaidu onen iru atzondoaz betiko oeratu nengike : eta zuk, egitekoa onan eginda, agokada zar au, gure bideak eragotzi bear eleuskiguzan Zurtasun yaun au betibeti kiñu egingo leukean tokira bidaliko zeunke. Ganetikoari buruz, zure azalbena guztiak artuko dabe katuak esnea edaten dauen letxe ; guk aroari au, naiz ori ondo datorkola esan ba'dagigu, beste guztiak ontzat artuko dabe.

Sebasten'ek. — Ik egina izango dok, adiskide maite, nik egitekoaren aurretiko ; ik Milano iritxiko eraz lortuko yoat nik Napoli. Atera ire ezpatea ; zartada batek yareiko au i ik ordaintzen dokan zergatik ; eta nik errege onek maite izango aut.

Andoni'k. — Atera zeuk be ; eta nik nire eskua atzeratu dagidanean, zuk beste ainbeste egin, Gontzal'eri erasoteko.

Sebasten'ek. — Ara ! Itz bat, ez besterik. (*Eurak euretara izketan.*)

Eresi. Barrien-barri aurrera ARIEL, iñok ikus-eziniñ.

Ariel'ek. — Nire ugazabak aurre-yakitez ba-daki bere adiskideak zelango galbidean dagozan ; eta neu bidaltzen nau ona, ostean aren asmoa, biziak bizirik eukitekoa, galdua litzateke-ta.

(*Gontzal'en belarrira abeska*)

Zu emen lo-arrantzaka zatzen artean

Azpikeriak begi-zabalik

Bere eretia artzen dau :

Biziaren ardurarik ba'dozu,

Aztindu lo-zorro ta zagoz itzarrik :

Itzarri, itzarri !

Andoni'k. — Orrezkero, garbiltzan gu biok bizkor, eta zirti-zarta.

Gontzal'ek. — Orain, angeru onok, yagon errege ! (*Itzarri egiten dira*)

Albontsa'k. — Ara ! Zer dok au ? Ara ! Itzarri ! Zetarako atera dok ezpatea ? Zegaitik begirakune larri-itza ori ?

Gontzal'ek. — Zer da ?

Sebasten'ek. — Gu emen zure atsedena yagoten egon gareanean zezen, edo obeto esan, leoiaren antzeko orroa arroa entzun izan dogu : ez ete zau ak iratzarri ? Ak larri-larri nire belarriai iztenak eragin izan dautsez.

Albontsa'k. — Nik eztot ezer entzun.

Andoni'k. — Mamuren belarria ikaratzeko' añako durundu izan da ; lurra bera be ikaratzekoa ! Leoiarena barik leoi-talde osoarena izan da, urrean.

Albontsa'k. — Entzun dok olangorik, Gontzal ?

Gontzal'ek. — Nire izen ona-arren, yaun, nik entzun do-dana iñondiko durundu izan da ta orrexek iratzarri nau : nik zuri eragin, yaun, eta gedar egin dautzut ; begiak idigi dodazanean orrein ezpatak aterata ikusi dodaz : durundu izan dana egia da ; yagon daiguzan gure buruak ; edo-ta emendik alde egin : atera daiguzan gure ezpatak.

Albontsa'k. — Yari adi i aurretik, eta toki onetatik alde eginda, gaioazan nire seme gixaxoaren billa ostera be.

Gontzal'ek. — Yari adi aurretik eta gaioazan.

Ariel'ek. — Posper nire yaunak yakin bear dau nik egina (*Bere kitean*) ; orrekero, errege, zoaz bildurge zure semearen billa. (*Alde dagi.*)

II Agerleku. — *Izaroko beste arlo.*

KALIBAN aurrera, lepokada egurregaz.

Odei-otsak entzuten dira.

Kaliban'ek. — Eguzkiak zingira, iztinga, iztoki, oxin eta ur geldietatik edoski ta zurrut egiten dauzan kutsu guztiak bezoz Posper'en ganera, ta yan dagianaren atzondo bakotzeko

gaitz bat intsigiko al yako ! Aren iratxoak entzuten dauste, baña a ta guzti be nik ari birao-darioka ibili bear. Baña orreik ez dauste orratzik sartuko, ez kirikiño latzik erakutsita bildurtuko, ez ni lupetzan sartuko, ezta, ilintiak lez, ilunetan nire bidetik aldenduazoko, ak ai agindu ezik ; baña edozein aletz eta uskerigaitik ezarten daustaz : batzuetan, niri mosuak egin eta itz-ontzi diran eta gero usgiten dausten tximinoen antza artuta ; beste bein, nire bide-bidean yarrita, nire oña euren gane-ganera yoanda, euren arrantzakaz nire oin gorrietan min egiten dausten kirikiño latzen antza artuta ; beste batzuetan sugegorriak kirimilduten yataz soin osoan, eta euren min sardatuz txistu eginda, zoratu bearrean yarten nabe : Ara ! Ara !

TIRINKUL aurrera.

Emen dator aren iratxoetatiko bat, eta niri elorrioak emoten dator egurrak astiro daroadazalako : luze ta soña betean etzango naz ; ba-leiteke orrek ni onan ez oartzea.

Tirinkul'ek. — Emen eztago ez txarakarik, ez ezetariko zuzatz merrorik be egur-aldiaren erasotik nobere burua yagoteko, ta beste ekaitz datorku ganera ; axearen txistuak iragarten daust ; an aragoko odei baltz-eskarga ak bere zirina ixuri gurarik dagoan erlanagi motza dirudi : odeiak yo ba'dagi barri-barri, len yo dauen lez, eztakit nire burua non ostondukorik : a aragoko odeia kantinkadaka yausteko dago. Zer dogu emen ? Gizon ala arrain ? Bizirik ala ilik ? Arrain : arrain-usaina dau beintzat ; usain zantar eta arrain-sunda ; makallaotxo gatzituen bat eta ez gatzitu-barriena. Iñondiko arrain berau ! Ni orain Ingelanda'n ba'nengo (bein izan nintzan lez), ta arrain onen irudia bera euki, yai-egun-ergelen batek an onen irudiagaitik zidar-diru emongo leuskit : an mamu onek gizon egingo ninduke ; an iñondiko edozein piztik edonor gizon egiten dau ; eta eztabe emongo txakurtxikirik eskeko meikiri laguntzeko ; amar emongo dabez, ostera, Inditarren baten gorpua ikuste-arren. Arrano, gizonaren antzeko zangoak dauz ! Eta onen egalak beso-antzekoak dira ! Epel yagok, arranotan ! Boa ortik zear nire lengo eretxia, oraindik aurrera enaz eretxi atako ; au eztok

arrain, izaro onetako lagunena bat baño, oraintsu oñaztarrien batek joa. (*Ostots da*). Ene ! Ekartza dator osterara be : nik egin daikedanik onena onen txartes-pera zirrist egitea da ; alderdiotan eztago au ez beste legorrik : bearrak gizona iñondiko oelagunen ezagun egiten dau. Ementxe estali ta batuko dot nire burua ekartzaren ondarrak igaro arte.

ESTEPAN aurrera abeska ; eskuetan ardao-bonbil dauela.

Estepan'ek. — Ez ni egundo geiago itxasora, itxasora,
Emen ilgo naz legorrean ganoraz...

Doñu zirtzil-zirtzila dok au gizonen iletan abesteko : ondo dago, amen nire poza (*Edan egiten dau*).

Ontziburuak, ontziyagoleak, ontz-zainak eta nik
Suaga-zainak eta aren lagunak
Maite genduzan Mari, Miren, Marine ta Katalin,
Baña guri iñori ardura ez Segunda ;
Aren miñaren « tin-tan »-ak,
Ontzi-mutilari gedar egiten eutsan « Eure burua
[eskegik » ;

No ari etxakon gogoko ui ta pike-sundarik,
Baña edozeinek atz eikion izanik azkurarik :
Orrezkero, itxasora, mutilek, ak dagiala burua
[eskegi.

Au berau be doñu zirtzila da : Baña, amen nire poza.
(*Edan egiten dau*).

Kaliban'ek. — Enagik mindu : ai, ene !

Estepan'ek. — Ze arrai dok au ? Txerrenak ete doguz emen ? Marroak egiten ete dauskuzuek basati ta Indietako gizonakaz ? Nik etxoat uretan itotetik alde egin orain ire lau zangoen bildurrik izateko, eta izan be esakunea dok : « Egundo lau-oñean ibilikoa besteko benetako gizonak ezin eragin leio ari atzeraka », eta osterara be esango da Estepan'ek surretatik arnasarik artuko dauen artean.

Kaliban'ek. — Iratxoak gorriak ikusiazoten daustaz : Ai, ene !

Estepan'ek. — Au izaro onetako lau-oñeko mamuren bat dogu, ta, nire ustez, beroenaren aldikadea dau. Non denganiño ikasi ete dau gure izkuntza ? Gaitz-aringarriren bat emongo dausat, onentzako gai izatekotan. Osatu al ba'dagit, eta otzanik bare euki, ta beronekin Napoli'ra eldu, au bere biziko eskerakutsi litzateke egundo narruzko oñetakorik yantzi izan dauen erregentzat.

Kaliban'ek. — Enagik mindu, arren ; bizkorrago etxeratuko yoat egurra.

Estepan'ek. — Aldikadeak yo dau oraintxe ; eta bere itzak ez dira sentzuntsuenak. Nire bonbilekoa zelangoa dan ikusiko dau ; iñoz lenago ardaorik edan ezpa'dau, bere aldikadea larrilari kendu egingo dautso. Osatu al ba'agit, eta bare euki, ire alde geiegirik etxoat artuko : onek au dauenari onen zorra ordainduko dautso, eta ondorik asko ordaindu be.

Kaliban'ek. — Bein-beinean ez daustak egiten min andirik ; laster bai egingo daustak ; ori ire ikareak iragarten yaustak ; Posper'ek eragiten dausk orain iri.

Estepan'ek. — Egik eure naierea ; idigi egik agoa : katu ori, aiko amen iri itz eragingo dauskana ; idigi ago ori : onek uxatuko yok ire ikarea, baietz uxatu, sinetsi egidak ; ik ezin esan daiketik nor dan ire adiskide : zabaldu ire masalla-azurrok osterara be.

Tirinkul'ek. — Berbaro ori ezagun yat : urliarenak izan bear leuke izan, baña a itorik da ; eta onako oneik txerrenak dira. Ene ! Lagun zakidaze !

Estepan'ek. — Lau oin eta berbaro bi : iñondiko mamu ! Onen aurretiko itzarora orain bere adiskideaz ondo esatea da ; atzetiko itzarora, osterara, zantarkeriak eta iñori buruz txarto esatea da. Nire bonbileko ardao guztiak zuzpeltu al ba'dagi, onen beroenaren aldikadea benderatzen lagunduko dausat : Tiruk... Olantxe ! Ire beste agoan be ixuriko yoat arean.

Tirinkul'ek. — Estepan...

Estepan'ek. — Ire bigarren agoa ete yagok niri deiez ? Ene ! Ene ! Au txerren yatzu, ez mamu. Itxi dagidan geldi ; eztot txali luzerik.

Tirinkul'ek. — Estepan !... Estepan ba'zara zu, ukutu na-

gizu ta itz egidazu ; ni Tirinkul naz-ta , ez izan bildurrik ; ni zure adiskide on Tirinkul naz.

Estepan'ek. — Tirinkul ba'az ator argitara ; zangorik laburrenetatik indar egingo yoat ; zangootarik arean Tirinkul'enik izatekotan, oneik dira arenak Izan be i Tirinkul berbera az ; zelan eldu az i yaiotzatiko ergel onen barrura ? Onek puzka Tirinkulak egotzi daikez, ala ?

Tirinkul'ek. — Nik ori oñaztarriak ilekotzat artu naioan : baña ez ete az ito, Estepan ? Orain zu etzareala ito ustetan nago. Ekatxa yoana ete da ? Ni, ekatxaren bildurrez, yaiotzatiko ergel il onen txartes-pean ezkutuan yarri naz. Bizirik zagoz, ala, Estepan ? Ene Estepan, Napoli'tar bik igesi !

Estepan'ek. — Arren, ez egidak birarik eragin ; nire biuzturia larri yagok.

Kaliban'ek. — Oneik iñondiko gauzak dira, ta iratxoak ezpa'dira, yainko indartsuen bat da, ta zerutiko edaria daroa : bere aurrean belaunbiko yarriko naz.

Estepan'ek. — Zelan urten dok ik onik eta ondo ? Nolan eldu az ona ? Bonbil auarren zin egik nolan eldu azan ona. Nik neuk itxas-gizonak ontzi-egaletik itxasora egotziko ardao-upelganean igesi naioan, eta au itxasertzatuezkero neure eskuz zugatz-azalagaz eginiko bonbil au-arren dirauskat !

Kaliban'ek. — Bonbil ori-arren zin egingo dautzut zure benetakoa bendeko izango nazala ; orrek daukan edaria ludi onetakoa ezta-ta.

Estepan'ek. — Eutso ; orrezkero zin egik ik nolan igesi enduan.

Tirinkul'ek. — Atatak legetxe uger egin neban izpasterrera, gizon ; nik ba'dakit atatak lez uger egiten : orreri buruz zin egiten dot.

Estepan'ek. — Eutso, mun egiok idazti oneri : atatak lez uger egin daikekan-arren, i antzarraren antzeko egin aue.

Tirinkul'ek. — Ene Estepan, onangorik arean geiagorik ez ete dozu ?

Estepan'ek. — Upel-bete, gizon, upel-bete. Nire ardan-gela itxasertzeko artzulo dok ; antxe yagok ostonduta nire ardaoa. Nolan ago, yaiotzatiko ergel ori ? Zelan yoak ire beroenaren aldikadea ?

Kaliban'ek. — Zu ez ete zara yausi zerutik ?

Estepan'ek. — Iretargitik yausi nok, bai orixe. Ni len iretargiko gizona izana nok.

Kaliban'ek. — Nik an ikusia zaut. Nire ugazaba-andereak erakutsi zindudazan, baita zure txakurra ta egur-sendorra be.

Estepan'ek. — Tiruk, orreri buruz be zin egistak ; mun egiok idaztiari ; idazti ori barriro beteko yoat : zin egik.

Tirinkul'ek. — Argi on au-arren ; mamu au azal-azal da : Onen bildur izan ? Mamu makal-makala da au ; ...Iretargiko gizona ! mamu gixaxo onen sinispera utsa : benetan, ondo margoztu aue, mamu.

Kaliban'ek. — Izaro onek dauen lur emokorra atzondorik atzondo erakutsiko dautzuek ; eta zure oñari mun egingo dautsat : arren-bai-arren, zakidaz nire yainko.

Tirinkul'ek. — Argi au-arren, i mamu saltzalle-saltzalle ta mozkorti az ; orren yainkoa loak artu dagianean, orrek bonbila ostu egingo dautso.

Kaliban'ek. — Ire oñari mun egingo yautsat ; zin egingo yoat ire bendeko izango nazala.

Estepan'ek. — Orrezkero, tiruk ; belaunbikotu ta zin egik.

Tirinkul'ek. — Iztenak egin arteko barreak egingo dautsaz buru bako mamu oneri : mamu zirtzil-zirtzil oneri ! Nik i yo egin bear induket...

Estepan'ek. — Tiruk, mun egiok.

Tirinkul'ek. — ...mamu gixaxo au edaritan ezpa'lego ; mamu onen askarri !

Kaliban'ek. — Iturririk onenak erakutsiko dautzuedaz ; arangarratzak, aubiak, masustak-eta batuko dautzuedaz ; iri arrantzuan be egingo dauskat, eta itzako egurrik asko ekarri. Izurriak eroango al dau ni otsein naiakon lege bako gizona. Geiago eztautsat batuko abarrik, iri iñondiko gizon orreri yarrari baño.

Tirinkul'ek. — Mamu onen barregarri ! Mozkorti gixaxo iñondiko gizontzat dau-ta.

Kaliban'ek. — Arren-bai-arren, itxi egidazu karramarroak azten diran lekura zu eroaten ; eta nire atzazal luzeokaz esku-ti-ogiak aterako dautzudaz lurpetik ; eskillaso-abi erakutsiko

dautzut eta irakatsi zelan oratu oragalluz tximino bizkorra ; ur-mordontxiloetara eroango zaut, eta nozipeinka atxetatik itxas-ezti egin-barria ekarriko dautzut : yoan gura dozu nikin, ala ?
Estepan'ek. — Arren-bai-arren, itz-darioa itxita, erakutsi egidak bidea. Tirinkul, errege ta beste lagun guztiak ito dirian-ezkero, izaro onen yabe egingo gozak. — Eutso (*Kaliban'eri*) ; eroaik nire bonbila. Yarra! Tirinkul'eri ; ori nozik-bein ostera be bete egingo yoagu.

Kaliban'ek. — « Agur, ugazaba ; agur, agur » (*Mozkorantzera abesten*).

Tirinkul'ek. — Ausika daragoion mamu ; mamu mozkor.

Kaliban'ek.

« Eztat egingo geiago arraintenzako ur-örmarik ;
Ezta billatuko errekinik
Iñok aginduz,
Ezta olik igurdiko ta azpilik irukutziko ;
Ban, ban, Ka-Kaliban'ek
Ugazaba barri dau. Gizon barri dau. »

Azkatasun, eup, mutil ! Eup, mutil, azkatasun ! Azkatasun,
eup, mutil azkatasun !

Estepan'ek. — Mamu adoretzu ori ! Oa i aurretik. (*Alde dagie*).

III. — EKITALDI

I Agerleku. — *POSPER'en txabola-aurrea.*

PERDINANDA aurrera, zubil dakarrela.

Perdinanda'k. — Yolas batzuk mingor dira, ta eurak dakarren nekeak eztautso egiten lekurik atseginari : zirtzilkeri batzuk gizonki yasaten dira. Eta zeregin apal-zirtzilkeri geienak elburu ta xede goikoetarako bide izaten dira. Nire zeregin ziztril au aztun-nekor egingo litxakit, aspergarri da-ta ; baña ni otsein naiakon andereak ilek be biztuko leukez-ta, nire nekeok atsegindu egiten daustaz : eta a aren aita asarrebera dan baño eun

bider txeratsuago ta leunago da ; eta aita laztasuna bera izan. Nik emendik au lango zugatz-zubilak millaka kendu ta pilatu egin bear dodaz, agindu gorriaren arauz : nire andera maiteak negar egiten dau ni lanean izerdi-bitsetan ikusita ; eta onango zirtzilkerik onango egilerik egundo eztauela izan esaten dau. Aitzu egiten yat : baña oldozpen leunok nire nekeak arindu dabez ; latzen oldozpenok gitxien dodazanean egiten yataz.

MIRANDE aurrera, ta an arago baten POSPER.

Mirande'k. — Ai ene, bada ! Arren, ez ekin lanari orren gogor : tximisteak erreko al dauz zuk pilatu bear dozuzan zubilok ! Arren, eratsi egizu bizkarretik, eta atsedean artu egizu : orrek su egin dagianean zu nekatuagaitik negar egingo dau. Nire aitak gogotsu daragoio ikasten : orain, otoi, atsedean ar egizu : ak iru orduotan eztautzu yaramongo.

Perdinanda'k. — Andera maite-maite ori, eguzkia sartuko da nik nire arloa egin baño len.

Mirande'k. — Zu yezarrita zagozan artean, neuk eroango dodaz zure zubilak ; arren, ekazu ori ; neuk eroango dot egur-pilora.

Perdinanda'k. — Ez, izaki eder-eder : lenago karrask eragin nire zan eta giarra, bizkar-azurra ausi, nik olango irainik yasan baño, ni zure aldamenean arkolo yezarrita nagoala.

Mirande'k. — Ori niri saritzat legokit ; eta nik ori zuk baño errezago egingo neunke ; zu neke orren aurka zagoz, ni, ostera, orren alde.

Posper'ek. — (*Bere kitean*). Mamarro errukarri ori ! zu kutsututa zagoz ; zure ikustaldi onek argirorik asko iragarten dau ori.

Mirande'k. — Zuk unatuaren antza dozu.

Perdinanda'k. — Ez, andera zindo ; zu gabaz nire aldameanean zaukadazanean, niretzako goxalde ozkirri da. Arren-bai-arren, esan egidazu zure izena, alan be nire otoi-tzetan gogora dagidan.

Mirande'k. — Mirande yat izena ; ene aita, au esanaz zure agindua ausi dot !

Perdinanda'k. — Mirande gelgarri ori ! (2 bis). Izan be, zu gelgarrien gelgarri zara ; munduan danik zerik ederrena añako ! Amaikatzko andera eder begiratu izan dot nik lotsarik andienaz ; eta ainbat bidar euren miñaren eresi gozoak benderatu izan dauz nire belarri zoliegiaik ; ekandu on bategaitik nai bestegaitik ainbat emakume egin izan yataz begiko ; baña egundo eztot ikusi emakume oso onik bere ekandu onakaz batera akats au edo ori burruka eztabilkonik eta arein ederra ilundu eztautsonik : baña zu, zu langorik eztan ori, zu izaki bakotzak dauen zerik ederrenez egina zara.

Mirande'k. — Nik eztot ezagun nire ar -emetasunekorik bat be ! emakumerik eztot ezagun, nire ispillu-bitartez neure burua, ez besterik ; ezta nik gizon deitu daikeodanik be zu nire adiskide on ori ta nire aita maitea, ez besterik be : ortik zear dirianen antzak zelangoak dirianik nik tautik be eztakit ; baña niri izamenak emoneko esku-erakutsien pitxitzat dodan nire apaltasunez eta lotsortasunez nik zu, ez besterik eneunke gurako laguntzat ludi onetan ; eta nire irudimenak be ezin antzik emon izango leuskio nire begiko izan leitekeani, zeu ez besteri. Baña nik umekeri geiegi esaten daragoiot eta aitaren aginduak austen.

Perdinanda'k. — Ni, nire izatez, Mirande, ni errege-seme naz ; errege bera, urrean ; eta ez al nintz olangorik ! — Eta egurreta-yoputasun au eneunke guragoko aragi usteleko euliak nire agoan durunduka ibiltea baño. Entzun nire biotzak diñoana : zu ikusi zindudazan une bere-berean nire biotzak zure otseintzara egaz egin eustan : arrezkero, or dago, ni orren benedeko egiteko ; eta orregaitik nozu zubil-gizon epetsu au.

Mirande'k. — Maite nozu, ala ?

Perdinanda'k. — Zeru-lurrok, izan zuok ots onen lekuko, ta nik egia ba'diñot, eroan nire autorpena elburu maitagarriara ! Guzurra ba'ledi, ostera, niretzako etorkizun zan zerik onena okerretara yazoko al da ! Nik munduan danik edozer baño askozaz maiteago, aintzakoago ta goragarriago zaut.

Mirande'k. — Ni ergel nozu, pozbideak negar eragiten daust-eta.

(2 bis) Mirande itzak gelgarri, arrigarri esan gura dau.

Posper'ek. — (Bere kítean). Iñondiko leieak yo dabe emen alkarregana ! Zeruak eskar gozozko euria bidaltzen dautsoe orrein artean azten daragoionari !

Perdinanda'k. — Zer dala-ta zagoz negarrez ?

Mirande'k. — Nik emon gura neunskizunik emoten azartzeko gai enazalako ; eta artu ezik ilgo nazana yakin eta artuzeko gai enazalako. Baña au be ba-da, ba, aletza ; eta ezkutuzago egon gurago ta geiago erakusten dau bere burua ; alde emendik maltzurkeri lotsorrok, eta emoidazue errugetasun izurge ta gurena ! Ni zure emazte nozu, nikin ezkondu gura ba'dozu ; zuk gura ezik, zure otsein ilgo naz ; zuk ukatu zengist zure lagun izatea ; baña zuk gura-nai-gura-ez, ni zure otsein izango naz.

Perdinanda'k. — Nire andera, maite-maite, eta ni onan beti apal.

Mirande'k. — Orrezkero, nire senar ?

Perdinanda'k. — Bai, eta bendekotasuna azkatasun-zale dan besteko zaletasunaz nire biotzean : eutsi esku au.

Mirande'k. — Eutsi nire au be, biotza barruan dauela : eta orain agur, emendik ordu-erdirarte.

Perdinanda'k. — Millaka ordu ! Millaka !

(*Perdinanda'k eta Mirande'k alde dagie*).

Posper'ek. — Ni onegaz ezin poztu naiteke orreik aña, ni orregaz arriturik egonarren ; baña, orraitño, ezek be ezin poztu nagike geiago. Ni nire idaztira noa ; oraindik aparitararte arira datorren lan-arlo andia dot egiteko-ta.

II Agerleku. — *Izaroko beste alderdi.*

*ESTEPAN eta TIRINKUL aurrera ;
KALIBAN atzetik bonbilegaz.*

Estepan'ek. — Ez egidak esan ; — upela ustu daitenean, ura edango yoagu ; tantanik bez ordurarte ; orrezkero, ez larritu, ta iruntsi ; otsein mamu, edaik nire alde.

Tirinkul'ek. — Otsein mamu ! Bai, zera ! Izaro onetako

ergel ! Izaro onetan bost baño eztiriala diño ; euretatik iru geu gara ; beste biak guk baño buru zindoagorik ezpa'dabe, erri au zealdoka ta albo-alboraka dogu.

Estepan'ek. — Edan, otsein mamu, nik agintzen dauskadanean : ire begiak larri-larri ire buruan sartuta yagozak.

Tirinkul'ek. — Oba ez ; eta izan be, non egoteko buruan ezik ? Mamu ikusgarri litzateke begiak buztanean ba'leuz.

Estepan'ek. — Nire gizon mamuak bere miña ardao zuritán ito dau : ni neu beintzat itxasoak ezin ito nagike : itxasertzera baño len ogei ta amabost legoako bidea egin neban uger, atzeraka ta aurreraka, argi oneri eskerrak. — I izango az nire ordeko, mamu, edo nire eredu.

Tirinkul'ek. — Zure ordeko, zuri ba'deretxatzu ; ori ezta ezetan eredu.

Estepan'ek. — Ez gaiozak aringa, mamu jaun.

Tirinkul'ek. — Ezta iñora yoango be : etzan egingo az, txakurrak lez ; eta ez deusik esan be.

Estepan'ek. — Ergel yaio orrek, ire bizian bein itz egik, ergel yaio ona ba'az.

Kaliban'ek. — Nolan dago zure zindotasuna ? Zure oñetakoak miazketan itxi egistazu. Ni enaz izango orren otsein ; ori ezta adoretzu.

Tirinkul'ek. — Guzurra diñok ik, mamu ezyakin-ezyakin orrek : ni erri-zainakin be burruka egiteko gertu naiagok. Errekatik aterako arrain ori, noz izan dok dollor eta bildurti gaur nik edan dodan beste ardao zuri edaneko gizona ? I erdi arrain eta erdi mamu baño izan ez-ta olango guzur eskargarik esango ete dok ?

Kaliban'ek. — Ara, irrika dabil ! Olangorik egiten itxiko ete dautsazu, ene jaun ?

Tirinkul'ek. — Jaun, diño orrek ! Ori bai ba-dala izateaz besterako mamu !

Kaliban'ek. — Ara, ara ostera be ! Usika egiozu, jaun, arren.

Estepan'ek. — Tirinkul, min ona izan egik ire buruan : asaldari ba'adi, urrengo zugatzetik eskegiko aut. — Mamu errukari ori nire bendeko dok eta eztautsak irainik egin bear.

Kaliban'ek. — Eskerrik asko, ene jaun zindo. Entzungo ete daustazu ostera be nik bein egin neuntzun eskaria ?

Estepan'ek. — Bai, mutil, entzungo dauskat : yarri adi belauniko ta esaik barriro. Ni ta Tirinkul zutunik egongo gozak.

ARIEL aurrera, iñok ezin iñusi dauela.

Kaliban'ek. — Lenago esan neuntzenez, ni gizon bioz-gogorren otsein naz, bere lupukeriz eta niri ziri ederra sartuta, izaro au ostu daustan aztu da a.

Ariel'ek. — Guzurra diñok.

Kaliban'ek. — Guzurra ik diñok, tximino irrilarri orrek, alango orrek ; nire ugazaba adoretzuak zuzituko al au ! Nik etxiñoak guzurrik.

Estepan'ek. — Tirinkul, orren esanetan geiagotan sartu ba'adi sartu, esku onegaz agin batzuk egotziazoko dauadaz.

Tirinkul'ek. — Ostera ! Nik eztot ezer esan.

Estepan'ek. — Orrezkero, ixilik, eta bego. — (*Kaliban'eri*) Yarraik.

Kaliban'ek. — Nik diñodana da, ak aztukeriz izaro au beregandu daustala ; ak nigandik artu eban. — Zure nagusitasunak ordea emon gura ba'leutso ari (zuk orretarako adorerik asko dozu-ta), baña au onako au ezta azartzen.

Estepan'ek. — Ori egi uts-utsa da.

Kaliban'ek. — Zu izango zara izaro onetako jaun, eta ni zure otsein izango naz.

Estepan'ek. — Zelan izan leiteke au ? Eroan ete nagikek lagun-artera ?

Kaliban'ek. — Bai, bai ene jaun ; nik a lotan eskuetartuko dautzut, eta zuk gura-ezkero, ari buruan untzea be sartu zineio.

Ariel'ek. — Guzurra diñok ; ik ezin dok.

Kaliban'ek. — Ze belamika barritsu-ergel dogu au ? Adabaki zirtzil ori ! Zure nagusitasunak orreri belarrondoko batzuk emon eta bonbila kenduko al dautso ; ori amaitu dakionean, orrek gezala ez besterik eztau edango : urgozo-iturriak norago dirianik eztautsat erakutsiko-ta.

Estepan'ek. — Tirinkul, ez adi yarri galbiderago ; bein geia-

gotan mamu oneri itza ebagi ba'dagiok ebagi, nik errukiari atepak itxita, opildu egingo aut nire eskuz.

Tirinkul'ek. — Ostera ! Zer egin dauksat, ba, nik ? Nik eztauskat ezer egin ; ni orregandik urrindu egingo naz.

Estepan'ek. — Ez ete dauksak esan orrek guzorra diñoala ?

Ariel'ek. — Ik guzorra diñok.

Estepan'ek. — Esan ete yoat ? Artuik au (*Yo egiten dau*). Au atsegin ba'yak, guzurtau nagik ostera be.

Tirinkul'ek. — Nik etzaut guzurtau. — Zu be burutik ezeze belarrietatik be eginda ete zagoz ? — Zure bonbil onen denganiñoa ! Au ardao zuria edanarena da ! — Zure mamua sakuteak yoko al dau ! eta txerrenak eroango al dauz zure atzak !

Kaliban'ek. — Ja, ja, ja !

Estepan'ek. — Orain, yarraik ire ipuña. Arren, i aragotu adi.

Kaliban'ek. — Gogorrango yo egizu ori : oraindik laster neuk be yoko dot.

Estepan'ek. — Oa arago ! — Tiruk, yo aurrera.

Kaliban'ek. — Ba, esan dautzudanez, ak eguerdi-ostean loaldi egiteko ekandua dau : lotan dagoala, ari atera zenegioz garaunak, lenen aren idaztiak zeuganduta ; edota, adakiz birrindu aren buru-azurra, naiz opildu a egurka, edo-ta ari iduna ebagi zure aitzoz nai aiotzez. Ez aitzu gero, lenen aren idaztien yabetu zaitzez ; aik barik a, ni nazan lez, kedarra baño geiago ezta, ta eztau izango iratxo bat be nori agindu ; aik guztiak dautsoe gorroto gorria, nik lez. Erre egizuz aren idaztiak. Ak lanabasa (berak beintzat izen au ezarten dautse) bikainak dauz, eta etxerik izan dagianean, eurekaz egingo dautso tellatua. Eta sakon-sakon ausnartu bear dana aren alabearen edertasuna da ; ak berak BAR-DINBAKO eresten dautso ; nik eguño eztot ikusi emakumerik, nire ama Saikoratz eta a baño ; baña a Saikoratz'en aldean eder be eder da, ederra itxusiaren aldean dan legetxe.

Estepan'ek. — Neska orren eder ete dok ?

Kaliban'ek. — Bai, yaun, zure oerako ederto be ederto letorkizu ; bai orixe, ta seme-alaba ederrak emongo leuskizuz.

Estepan'ek. — Mamu, nik gizon ori il egingo yoat : aren alabea ta ni errege ta erregeno izango gozak ; Gora gure

gurentasuna ! I ta Tirinkul errege-ordeko izango zarie. — Begiko ete yak asmo au, Tirinkul ?

Tirinkul'ek. — Itzalez.

Estepan'ek. — Ekak ire eskua ; i yo izanaz garbaituta naiagok : baña ire bizian min ona erabili egik.

Kaliban'ek. — Ordu-erdi barru a lotan dozu. Zuzituko ete dozu orduan ?

Estepan'ek. — Bai, nire izen ona-arren.

Ariel'ek. — Nik au nire ugazabari esango dauksat.

Kaliban'ek. — Pozez ganezka yarri nozu : ezteztitan nago ; izan gaitazan txitxari ; lentxoago irakatsi daustazun doñua taraka abestuko ete dozu ?

Estepan'ek. — Mamu, ik eskatuezkero, nik bidezko dan edozer egingo yoat, edozer, gero. Tiruk, Tirinkul, abestu yai-guan. (*Abesten daragoioe*).

« Irri egiezu, ta irriz ezetza emon egiezu ; irriz ezetza emon eta irri egiezu ; oldoztutea azke da. »

Kaliban'ek. — Ori ezta arako doñua.

(*ARIEL'ek yoten dau doñua danbolin eta txistuz*).

Estepan'ek. — Zer dogu au ?

Tirinkul'ek. — Au gure arako tararako doñua bera da, Iño-rez'en irudiak yota.

Estepan'ek. — Gizon ba'zara, gizon, erakutsi zure burua bera dan legetxe : Txerren ba'zara, ostera, artu gura dozun antza.

Tirinkul'ek. — Ene, azketsi egidazuz nire obenak !

Estepan'ek. — Ilten danak, bere zor guztiak ordaintzen dauz : nik eupada egiten dauksat : — Gure erruki izan adi !

Kaliban'ek. — Bildur zara, ala ?

Estepan'ek. — Ez, mamu, ni ez.

Kaliban'ek. — Ez izan bildurrik. Izaro au poza emoteko bai, baña ezetariko okerrik egiten eztaben zarata, ots, durundu ta aize-giroz beterik dago. Iñoz milla ereskinetik batera zoli yoten dabe nire belarrien urrean ; eta nozik-bein bai abotsak be, luzaroan lo egonda itzarri — arren, ostera be lo arrazoko

leuskidenak ; eta gero, ameseñan, odeiak idigi ta nire ganera aberastasunak eralgiten ebezala irudituten yatan : eta itzarten nintzanean, negarrez, barrien-barri ames egitea eskatzen neban.

Estepan'ek. — Bakalderri au egundokorik ondoen etorriko yat, emen eresia utsean izango dot-eta.

Kaliban'ek. — Posper zuzitu dagizunean.

Estepan'ek. — Ori bereala ta txirikelan egingo dogu : gogotan yoat arako ire ipuña.

Tirinkul'ek. — Otsa yoan doa : yarra dagiogun ta, gero, egin egitekoa.

Estepan'ek. — I aurretik, mamu, gu ire atzetik yoango gozak. — Nik danbolin-yotzalle au ikusi gura neunke : ixilduaz ixilduaz doa.

Tirinkul'ek. — Ba-zatoz, ala ? Nik yarraituko zaut, Estepan. (*Alde dagie*).

III Agerleku. — Izaroko beste arlo

ALBONTSA, SEBASTEN, ANDONI, GONTZAL, ADIRAN, PANTKESKA ta abar aurrera

Gontzal'ek. — Andera Miren-arren, ni ezin yoan naiteke aurrerago, yaun : nire azur zarrok minduta dodaz ; izan be emen bide kako-makotsu ta zearka-mearkatsu utsak doguz : bein artezak, bein kakotsuak ! Epe artu egizu, baña ni atse-den-bear gorrian nago !

Albontsa'k. — Agure yaun, nik ezin ezarri zuri errurik, ni neu be una-una eginda ta soñeko kemenak motelduta nagota : yezari ta atsedan artu egizu. Ementxe erantziko dot nire itxaropena be ta ez euki aldean luzarago nire zuritzalletzat : gu bere billa emen bideak betean eta bideak galduta gabiltzana itorik da : eta gu legorrez aren billa ibiliari irri ta barre egiten dautso itxasoak ; Tira, ba, egin baño eztauko.

Andoni'k. — Ni pozik nago orrek itxaroa galdu izanaz (*Banazean Sebasten'eri*). Bein atzeratu-arren, ez egizu itxi bertan-bera zuk bein aurrera eroateko artu zendun erabagia.

Sebasten'ek. — Urren letorkigun ereari oso-osoa elduko dautsagu.

Andoni'k. — (*Sebasten'eri banazean*). Bedi ori gau onetan-txe : eta izan be, bideak emoneko nekearen nekez unatu-unatuta dagokezanean eztabe izango, ezin izan daikie, soñak arin eta bizkor dabezanen zaintza ta zurtasunik.

Sebasten'ek. — (*Andoni'ri banazean*). Gau onetan egingo dala yifioat ; au bego au.

Eresi ben eta ifiondiko ; eta POSPER euren buruen ganean, agiri ezala. Ifiondiko Irudi batzuk aurrera, oturuntzea dakarrela ; mai-baranoan yantzan egiten dabe agur-soin-ereikera lirainakaz, eta errege ta enpaduai yateko dei eginaz alde dagie.

Albontsa'k. — Ze oskidetasun dogu au ? Entzun, nire adiskide onok !

Gontzal'ek. — Eresi itzalez gozo ta zoragarri !

Albontsa'k. — Yagola txeratsuk emon egiskuzuez ze-ruok ! Nortzuk izan dira orrako orreik ?

Sebasten'ek. — Ifiondiko gogaldi bizi ; orain bai nik sinetsiko dodala ba-dagozala adarbakardunak ; Arabi'n « penitz'en » (3) bakaulki deretxon zugatza dagoala ; une onetan ango errege penitz dala.

Andoni'k. — Nik biak sinetsiko dodaz ; eta nire sinismen-eske beste edozer etorri ba'dakit, egi dala zin egingo dot : ortik zear ibiliak egundo eztabe esan guzurrik, etxeko ergelak aik guzurtizat etsi izan-arren.

Gontzal'ek. — Nik orain au Napoli'n esango ba'neu, sinistuko ete leuskide ? Nik esango ba'neu onango ta onango izarotarrak ikusi dodazala, — eta izan be, oneik izaro onetako lagunak dira, urrean, — irudiz mamu-antzeko izan-arren, gutariko asko, edo obeto esan, gutariko ifior baño txeratsugoak.

Posper'ek. — (*Bere kitean*) Yaun zindo, ondo esanda zuk esana, zuatariko batzuk txerrenak baño okerrago zarie-ta.

(3) Penitz nai pointiz. Miti-egazti au Aigito'koa yatzu ta eguzkiari opatua zan. Ipuña eztabe guztiak bardin eralgiten, baña batzuk diñonez, egazti au ango Eliopoli ur'an bosteun urtean bein agertzen ei zan, eta agertuta ara, egur-meta batu ta aren ganean erreten ei eben, baña pointiz barria sortu ta yagiten ei zan.

Albontsa'k. — Nire gorapenak eztira izango lar Irudi orren-
tzat, olango soin-ereikerak eta abots esankorrek dabezanezkero,
miñik erabili ez-arren, olango itzaldi ixil-ederra egin dauskue-
nontzat.

Posper'ek. — (*Bere kitean*) Alde egitaldian goratu egizak.

Pantzezka'k. — Iñondiko eraz ondatu dira.

Sebasten'ek. — Eztau ardura ; yakiak or euren atzean itxi
dabezanezkero ; eta izan be, guk ba-dogu urdallarik, Gura
dozue or maian dagozanak zelangoak dirian ikusi ?

Albontsa'k. — Ez nik.

Gontzal'ek. — Benetan, yaun, eztozu bildurrik zetan izan.
Mutiko gintzanean nok sinetsiko eban esan ba'leuskue ba-da-
gozala zezenak lez idunetik dingilizka narru-zorroa daben men-
ditarrak, idunetik dingilizka aragiz beteriko narru-zorroak dabe-
zanak ? Naiz, ba-dagozala burua bularrean daroen gizonak ?
Baña orain dakusgunagaz bai ona dogu bosten alde bat yokatu
ba'dagigu.

Albontsa'k. — Ni yakioi eldu ta yaten najoak ; ori nire
atzena izango ba'dok be, etxastak ardura, gure onena yoana
dala uste yoat-eta : — Anai, nire yaun duke, aurrera, ta egin
zuok be guk dagiguna.

*Ostotsak eta yusturiak. ARIEL aurrera, emakume-egazti-
antzez (4) ; egoak aztintzen dauz mai-ganean, eta iñon-
diko bidez oturuntzarik agiri ez geiago.*

Ariel'ek. — Zuok iru gizon obendi zarie, beko mundu au
ta bertoko oro bere esaneko ta bitarteko dauzan alan-bearrak
itxaso ase-beteari okadaka egotziazoko iru gizon obendi ; eta
gizonik bizi eztan izaro onetara egotziazok izan be : biziteko
gitxien egoki zarienok. Nik burutik eragin dautzuet ; eta onan-
goxe adorez gizonai euren buruak eskegiago ta itoazo dautse-
daz.

(4) Emakume-egazti. Miti-iztiko au soñez egazti ta buruz emakume
ei zau ; erpa luzeak ei ebazan eta txitean-pitean ei egoan zirin andurtsu-
nazkagarria eriola. (Ikusi Enearena, III, 241-265 ta Odiseurena, I, 144).

(ALBONTSA, SEBASTEN eta abarreñ
ezpatak ateratzen dabez)

Ergelok, alangook ! Ni ta nire lagunak alan-bearren agin-
dukoak gara ; zuon ezpatak gaitzat izan dabezen lenen-gaiak
bardin zauritu leikiez axe zaratatsuak, naiz irri egiten yakien
epaiz beti alkarrerri deuten urak il, nire egakiko uletxo bai bera
gitxiagotu baxen errez ; nire lagunak be onangoxe zauri-ezinak
dira ; minik egin al ba'zendue be, orain zuon ezpatak zuon
indarrentzako aztunegi dira, ta ezin eragi izango dozue. Baña
gogoratu, — zuokana nakarren egitekoa auxe da-ta, — gogoratu
zuok Milano'tiko irurok Posper onaren tokia artu dozuela ; a
itxasoari emon dautsazuela, ta itxasoak azke itxi dauela bai a
bera, bai aren alabatxo errugea, ta egite askarri orregaitik alme-
nak, zuok eginarekiko zigorra geroratu bai baña aztu ez-ta,
asarre bizian yarri dabezala itxasoak eta izpasterrak ; bai, izaki
guztiak, zuongentzearen aurka : Iri, Albontsa, iri ire semea
kendu dauskae ; eta nire bitartez, ire ganera astiro-astiro etorri-
ko dan ondamendia iragarten yoek, bat-bateko eriotzea baño
txarrago dan ondamendia, ire ta ire asmoen zai dagoana ; zuok
almenon asarre gorritik alde egiteko bide bakarra zuon biotz-
naibagea ta, orren urren, bizitz zintzoa dira : eta orrako ori izaro
bakar-bakar onetantxe egin ezpa'dagizue, orrako asarre ori bete-
betean yausiko da zuon buruen ganera.

*Ostots artean ondatuten da : gero, eresi leunez, arako
Irudiak osteria be aurrera, ta mosuak eginda, maia
kendu egiten dabe.*

Posper'ek. — (*Bere kitean*) Ene Ariel, itzalez ederto egin
dok emekume-egazti onen egitekoa ; gatz andiz irunsten izan
yok orrek : ik esatekoetan nik agindurik txikerrenik be eztok
itxi betetzeka : olan, bizkor-bizkor eta iñondiko zeaztasunez egin
dabez euren egitekoak nire bendekorik zirtzilenak be : nire lili-
rapen andiak eta oneik nire areriook alkarri yosi-yosi eginda,
oneik zer egin eztakiela ta nastuta dagoz : orain nire bendeko
dodaz ; eta aldien onek yota itxiko dodaz nik oneik, ni neu

oneik itotzat daben Perdinanda Gaztea ta bere ta nire maite-
maitea ikusten nazan artean. (*Posper'ek alde dagi*).

Gontzal'ek. — Zer gurenen bat-arren, yaun, zer dala-ta
dozu iñondiko begirakune ori ?

Albontsa'k. — Eneee ! Onako au mamuena da ! Itxasoak
orroa egiten ebalata ta berak itz egiten eustala iruditu yat ; axeak
be orixe abestuten eustala ; eta oskin sakon eta ikaragarri dirian
ostotsak be Posper'en izena aitaututen eustela ; ak abots lodi-
sakonez abestu dau nire utsa. Beraz, nire semea itxas-ondoko
lupetzan datza ; eta nik egundo ondo-berunek billatu izan
dauen baño ondorago billatuko dot a, ta akin batera an lupe-
tzako oean etzan. (*Alde dagi*).

Sebasten'ek. — Aldien txerren bat, euretariko taldeak ben-
deratuko dodaz nik.

Andoni'k. — Neu izango nozu zure urrengo. (*Sebast. eta
And.'k alde dagie*).

Gontzal'ek. — Orreik irurak dagoz etsita ; euren erru an-
diak, bere lana geldi-geldi egiteko emoten dan edenaren antze-
ra, ba-daragoio orrein indarrak makaldu ta ristuten : — nik
baño azur-giltza bigunagorik dozuonok, arren-bai-arren, zoaze
arin orrein yarra atzetik ara, orain orrein yabe eginda dagoan
lilurapenak eragin leioena galazoteko.

Adiran'ek. — Yarra, arren-bai-arren. (*Alde dagie*).

IV EKITALDI

I Agerleku. — POSPER'en txabola-aurrea

POSPER, PERDINANDA ta MIRANDE aurrera

Posper'ek. — Zigor aztunegia ezarri ba'dautzut, nik zuri
orren ordezkotzat emonak kitututen dau ori ; eta izan be, nik
zuri nire biziaren ari emon dautzut, niri bizirik eusten daustan
aria ; eta bein barrero yarten dot ori zure eskuetan : nik zuri
ezarriko lorrak zure maitasuna zelangoa dan ikusteko izan dira,
ta zuk nire azterpen ori iñondiko eraz yasan dozu : emen, Ze-

ruaren aurrean, sendesten dot nire esku-erakutsi bikaina. Per-
dinanda ori, ez egin niri irribarrerik, nik ori onan arro goratzen
dodalako. Eta izan be, zeuk ikusiko dozu orrek gorapen guz-
taii geiago egin eta atzean urrin izten dauzala.

Perdinanda'k. — Sinisten dot nik ori, baita yainkoen batek
besterik esango ba'leu be.

Posper'ek. — Orrezkero, artu egik nire alabea, nire esku-
erakutsizat, eta ik euk ondo irabazitzat : baña egiteko zer gu-
ren guztiak zeatz bete-aurretik orren neska-lotsakizuna ausi ta
apurtu ba'dagik, egiune au azteko onespén gozorik ez al dau ixu-
riko zeruak : bai, ostera, gorroto antzuak, ezespén betokerrak,
alkarikusi-ezinak estaliko dabe zuon ezkon-oea, bedar txarren
antzera, ta zuoi oe ori gorrotoazo egingo dautzue ; orrezkero,
abil arduraz, legezko ezkontza-argiak zuoi argi egin arte.

Perdinanda'k. — Egun baketsu, legezko seme-alaba ta
bizitz luzearen itxaropena dodanezkero orain dodana langoxe
maitasunagaz ; okulurik ilunenek, erarik egokienek, iratxorik
gaiztoenek burura ekarri dagiskedan zirikaldirik baltzenek eztau
egundo loituko nire izen ona lizunkeriz ; eztoz, amustuko eztegu-
egun-aurretik leiearen ertz zorrotzik, egun atan nik edo Pe-
ba'n (5) zaldia unatu ta ebagita gelditu diriala, edo-ta gaua an
bean estuntzaz estuta gelditu dala uste izateko.

Posper'ek. — Ederto esanda ; yezarri, orrezkero, ta itz egin
orrekín, ori eure dok-eta. Eeee ! Ariel ; nire esaneko zoli-asmo-
tsu, Ariel.

ARIEL aurrera.

Ariel'ek. — Zer gura dau nire ugazaba altsuak ? Emen
nozu ni.

Posper'ek. — Ik eta ire lagun i baño txikiagoak zuon azke-
nengo otseintzea egundokorik ondoen egin izan dozue ; eta
orain a lango beste ziltzi-maltzan erabili gura zauet : oa ta ekarri
egik ona nik iri aren gain almen emoneko zarramarrea ; bizkor

(5) Eladetarren miti-iztian Apolon'eri Poiba eresten yako batzuetan
(geicnetan Omer'ek izen biekaz), alan be eguzkiaren ordeko datorrenean.
Zuk, irakurle, emen Poiba'ren orde « eguzkia » irakurri egizu, bai,
eta zoaz aurrera.

ibiliako egiek, bikonde onon begien aurrean nire arteak asmauko uskeria imini gura yoat-eta ; nik onei agindu yautset eta oneik orrako orren begira yagozak.

Ariel'ek. — Bertatik, ala ?

Posper'ek. — Bai, begiak itxi-idigian.

Ariel'ek. — Zuk « ator » eta « oa » esan eta arnasea birritan artu-orduko ; eta zuk « olan eta olan » gedar egin-orduko ; bakotxa bere beatz-mokoen ganean datorrela emen izango dira mosuak egiten : maite ete nozu, ugazaba ? Ez ?

Posper'ek. — Itzalez, ene Ariel me ori. Etzakidaz urreratu, zuk nire deia entzun arteño.

Ariel'ek. — Ondo aitu dot. (*Alde dagi*).

Posper'ek. — Begira ta zintzo izan ; maitekerietan ez nasaitu geiegi lokarririk ; zinik sendoenak odol beroaren suarentzat lasto baño eztira : neurriberago izan, ostean agur zure zina !

Perdinanda'k. — Nik itza damotzut, yaun : zagoz nasai. Nire biotzeko soin-osotasunaren edur zuri-otzak nire gibelesko beroa otzitu egiten dau.

Posper'ek. — Ori ondo. — Ator orain, ene Ariel : iraxo gixiegi barik geiegi ekarrik orain : agertu ta lotsabako agertu be. — Ez eragin miñi ; bedi dana begi : ixilik egon. (*Eresi samur*).

Koçomarro. IRITZ (6) dator aurrera.

Iritz'ek. — Keretz (7), andera esku-zabal esku-zabal ori, zure garitza, zikiriotta, garagartza, zalketza, oltza ta idartza yori-aberatsak ; ardiak moztuten dabezan zure mendi-bedartzak eta eurak eukiteko ardi-txabola tellatu-lau, lastoz estaliak ; urneskak burestun argi-garbiak egiteko Yorrail apitzak, zure eskariz, zoragarriz yanzten dauzan zure ibai-baztar peoni ta liliz yantziak ; eta neskak yaramoten eztautsen mutilzarrak arein itzala maite daben zure erraztiak ; taketak deutsen zure maastiak ; eta zuk an axe ozkirria (iparra) artzen dozun zure itxas-

(6) Iritz au yainkoen bidaria ta ostadarra yatzu. Omer'en Ilias'enean eurrez agerten da, esaterako, III, 124.

(7) Keretz Erromarren yainkono da, Saturna ta Opits'en alabea. Gizakiai lur-lantzea irakatsi ei eutsen. (Ikusi Birgili'ren GEORGICA, I, 447). Erromarrentzako Kerets zana, eladetarrentzako Demeter zan.

ertz antu ta aitz gogorrezkoa : ni aren ostadar eta bidari nazan ortzeko Erregenoak (8) zuk ari zure orrako zerok izteko agintzen dautzu, bera onaxe bedatza onetara txairotasunik goren-goaz etorrita, emen yolasean eragoteko ; aren paumak egaz egin-alean datoz ona ; urreratu, Keretz aberats, ari lagun egiteko.

KERETZ aurrera

Keretz'ek. — Gora, bidari nabar, Yoba'ren (9) emaztearen aginduei egundo ezetik emoten eztautsezun ori ; zure azaparan-egoz (10) nire loren ganera ezti-tantanak, euri-zaparrada ozkirritzalleak ixurtzen dozuzan ori ; eta zure ostadar urdin orren adar bekaz nire baso-arloak eta nire zugatz-bako beetako landak burestundu ta lur arroari iduneko lirain-ederra ezarten dautsazun ori ; zegaitik dei egin daust ona zure erregenoak, bedartza bedarmotz onetara ?

Iritz'ek. — Maitasun biren egiune-yai egiteko ; eta maitale onetsioi esku-erakutsi esku-zabalez egiteko.

Keretz'ek. — Esaidazu, goitiko ostadar, erregenoak orain bere laguntza Benus (11) naiz onen semea dakarren ala ez, zuk ba-dakizu-ta. Arein asmo ta azpikeriz ilunbeko Ditz'ek (12) nire

(8) *Ortzeko Erregenoa.* Erromarrak Yune Yoba'ren arreba ta emazteari Ortzeko Erregeno eresten eutsen. Here Tzeu'ren emaztea etzan orrenbestekorik.

(9) Yoba edo Yupiter erromarren yainkorik nagusiena yatzu, eladetarren Tzeu legetxe. Yoba'ren gezia oñaztarria ei da.

(10) *Azaparan* dalakoa azi-zorro bellegidun landarea yatzu. Azi-zorrook, igartuta, gure yakiai margoa ta agokerea emoteko erabilten dabe sukaldariak. Euzkerazko izenik ba'dau, nik eztot ezagun.

(14) Benuts. Eladetarren Apordite ta au bat dira izan, seme Kupidota onen Heros dirian lez. Heros eta Kupidota maitasun-yainkoak dira, ta itsuak ei dira.

(12) Ditz nai Dispater izena erromarrak ilen erriko yainko nagusiari ezarten eutseen ; eladetarrek, ostera, Pluton. Shakespeare'k emen Ditz'eri « dusky » (iluna) deitzen dautso, ilunbeko bakaldun dalako. Orregaitik, Ditz'eri abere baltzak eskeintzen eultzoezan. Emen aipatzen dan Keretz'en alabea Kore edo Persephone da. Keretz'ek yakiteke, Ditz ostu ta ilen errira eroan eban bere emaztetzat, ama-alaben gurariz bestera. Keretz estu ta larri, bideak betean, eta goiak eta beak yoten, luzaro ibili zan bere alabearen billa ortik zear.

alabea iritxi ebanetik eta geiago No aren eta aren seme itsuaren lagunago lotsabakoari agur egin dautsat.

Iritz'ek. — Ez izan arein lagungoaren bildurrik. Yainkono ori Papotz'erako (13) bideko lañoak ebaten ikusi dot ; baita aren semea be berakin usoak eroanda : orreik uste eben uste emen gizon eta neska onei lotsabako lilurapenen bat egin eutsela, Imen'en (14) kurtzulua ixitu arte oe-kutsuketarik ez egiteko zin eg'nda dagozan gazteoi ; baña dana izan da alperrik ; Marte'ren kutun beroa atzera yoan da, belarriak apal ; aren seme erlabio-buruk ausi dauz bere geziak, zin dagi eztauela geiago gezirik yaurtingo, aurrerantzean artatxoriekaz yolas egin eta mutiko ona izango dala.

Keretz'ek. — Erregenorik gorengo, Yune andia ba-dator ; bere ibilkeratik dot ezagun.

YUNE aurrera.

Yune'k. — Nolan dago nire aizta esku-zabala ? Zatoz nikin bikonde au onesten, zori oneko izan daitezcan eta euren ondo-rengoak onein izenaren goragarrri izan daitezcan.

ABESTI

Yune'k. — Omen, ondasunak, ezkontza-onespen,
Luzaro iraun, eta ugaldu,
Eten bako pozak zuoi eldu !
Yune'k txera au dagitzue.

(13) Papotz, Kypros izaroko uri da. Uri onetan Benuts'ek entzute andiko yauretzea eban. Birgili'k (Enearena I, 415-417) auxe diño ; « Venus... ipsa Paphum sublimis abit, sedesque revisit laeta suas, ubi templum illi, centumque sabaeo thure calent arae, sertisque recentibus halant. — Benuts eguratsa zear Papotz'era doa, pozik osteria be bere etxera, izan be, an yauretze dau, eun opa-mai berotzen dauz Arabi'ko usain gozo-gaiak, eta lora-sorta barriai sunda atsegingarria darie ».

(14) Imen. Itz au eladetarrena da ta esan-gura bikoia. Lenen eta beinen, neska osoak umetokira-bidean, umetokia isteko dauen mintza esan gura dau. Bigarren esan-gurea lenengotik sortua da ta « ez-kontza-yainko » izan be.

Keretz'ek. — Lurak dakarrena ta ugaritasun oro,
Aletegi ta kutxarrik ez iñoz utsik ;
Maastiak mordontxiloiz bete-beterik ;
Landarak ugaritasunez adar-makur ;
Beranduenez udabarria betorkizue
Uztearen azken-azkenetan !
Urritasun eta ezak zuokandik alde begi
Keretz'en onespēna zuontzako auxe bedi.

Perdinanda'k. — Ikuskizun au andi-andia da, ta liluragarri-
gozoa : onako oneik zerutar gogotzat artzen azartuko ete naz ?

Posper'ek. — Bai, gogoak, nik nire burubidez euren tēgi-
etatik ona nire burutapenak beteteko ekarriak.

Perdinanda'k. — Beti emen biziko al naz ! iñongo iñondiko
aita arrigarri-zurak toki au Zoriontegi egiten dau.

(*Yune'k eta Keretz'ek alkarrekin txutxuputxuka daragoioe,
ta IRITZ zereginera bidaltzen dabe.*)

Posper'ek. — Ixilik orain, maiteok ; Yune'k eta Keretz'ek
benetan daragoioe txutxuputxuka ; beste zereginen bat da orain-
dik egiteko ; ixil, ez egin itzik, ostein gure lilurapena alperrik
galdua da-ta.

Iritz'ek. — Naiada izeneko ur-neska errekatxu makurreta-
kook, iizko burestundunok eta begirada beti errugedunok, itxi
zuon ur-bide latzak, eta erantzun zelai musker onetara egiten
yatzuen deiari : Yune da agintzen dautzuena. Erdu, ur-neska
geiegikeri bako ta izan lagun egiazko maitasunaren egiune one-
tan ; ez eldu beranduegi.

Ur-neska batzuk aurrera.

Igitari eguzkiak erreok, Dagonillaz aspertuok, erdu zuok be
sallatik, eta poztu ; egin opor : ezarri zuon buruetan zikirio-las-
tozko txapelak, eta ur-neska gazteok baserritar yantzita aurkitu
zagiezala.

Igitari batzuk aurrera, egoki yantzita ; ur-neskakain yantza
liraina egiten dabe ; eta yantzaldiaren atzenerantza Posper ager-

tzen da otoz-otoan, eta izketan daragoio ; orren ondoren, geldo-geldo ondatuten dira iñondiko ots arro ta nastuz.

Posper'ek. — (Bere kítean) Aiztuta neban nik Kaliban astakoak eta aren kideak asmautako azpikeri zantarra, nire biziaren aurkakoa ; arein asmoak beteteko unea larri-larri eldu da. (*Iratxoai*) Ederto egin daustazue ; bego ; ez geiagorik.

Perdinanda'k. — Iñondikoa dogu au : zure aita gogor eragiten dautsan yasanen baten bendea dago.

Mirande'k. — Gaur arte eztot ikusi nik ori olango neurribako asarre gorrik yota.

Posper'ek. — Zuk, seme, larrituta baizengoz, begirakune bakan dozu ; pozik egon, yaun : gure yai zaratatsua dagoneko amaitu da : orreik emen eragoioenok iratxoak yatzuzan, nik aurrez dik esan neuntzunez, eta eguratsetan urtu dira, egurats me-metan : eta ikuskizun orretako oñarri barik eragiko zer guzti ori legetxe banatuko dira nozbait odeietaraño dorreak, yuregi arroak, eleiz benak, zer borobil andi au berau be bai, beronek dauen oro, ta mami bako erakusketa au geldi-geldi ondatu dan legetxe, eztau itxiko bere atzean ondakinik : gu ames-gaiz eginak gaiatzuz, eta gure bizitzatxoa loak artzen dau barruan. Yaun, nik gogaldi txar dot ; yasan egizu otzan nire makal-aldi au ; nire garaun zarrak eurenetik urtenda dagoz ; ez larritu nire mengeltasun onegaitik ; begiko ba'yatsue, alde egizue nire txabolara ta artu an atsedean : ara-onaka yoan-etorri bat edo bi egin-gu dodaz, yoka dabilan nire gogoa geldituazoteko.

Perdinanda ta Mirande'k. — Gentza opa dautzugu. (*Alde dagie.*)

Posper'ek. — Atorkit, nik oldoztuaz bakarrik : eskerrik asko ; Ator, Ariel.

Ariel aurrera.

Ariel'ek. — Zuek oldozpenai deutset nik : zer da gogoko yatzuna ?

Posper'ek. — Iratxo, Kaliban'eri arrera egiteko gertu egon bear yoagu.

Ariel'ek. — Bai, nire agintari ; Keretz ekarri neuntzunean

orretaz zerbait esan neuntzulakoan nago, naiz ta orduan nire bil-durtxoa izan ez yatzula gogoko izango.

Posper'ek. — Esaik barriro, non itxi enduazan ik askarriok ?

Ariel'ek. — Edanaren edanez piperra baño gorriago egozala esan neuntzun : adorea adorez eguratsari be ezpatakadaka, arpegira putz egiten eutselako ; lurra be yo egiten eben, euren oñak txistu egiten ebelako ; baño orraitioño be euren asmorantza makurturik : nik orretan nire danbolina yo neban, eta orrezkero, ezi bako zaldizkoen antzera, belarriak arteztu ebezan, euren betazalak aurreratu, surrak eragi, eresi-usaina artu ebenekoxe ; olan, nik arein belarriak liluratu egin nebazan, aik, txalaren antzera, nire orroyari yarraitzeko asuar artsu, ota arantzatsu, iñaralatz, eta arantza artea zear, eta arantza-arrak euren txandar samurrak zear sartzen yakiezan : azkenez, nik aik zure txabolea baño aragoan dagoan oxin zikinez estalian itxi nebazan : an eragoioen aik yantzuan okotzetaraño uretan sartuta, iztinga zikinak arein oñak len baño zikinago ta andurtsuago izteko.

Posper'ek. — Ori ondo be ondo egin enduan, ene txori orrek ; adi oindokoarren iñok ikus-ezin ; oa, ta ekarrik nire eixeko sastamar ori, lapurrok barrandaritzeagaitik oratzeko.

Ariel'ek. — Ba-noa, ba-noa. (*Alde dagi.*)

Posper'ek. — Txerren, yaiotzatiko txerren, egundo azikera-rik ezin intsigi izan yakona ; aren alde, gizatasunak eraginda, nik egin izan dodazan alegin guztiak, guzti-guztiak alperrik galduak : eta urteen urtez aren soña geroago ta itxusiago egiten dan lez, aren gogoa be biziak yaten daragoio : Kisto'nak eta geiago emongo dautsadaz nik ari.

Ariel oster a be aurrera, yantzi didizkorrezko lepokada ta beste zer batzukaz, zerok bizkarrean dakazala.

Orroa egiteraño berotuko dautsat narrua : Tiruk, eskegi egizak burdin-ari onetatik.

KALIBAN, ESTEPAN, eta TIRINKUL aurrera,
guztiak busti-bustirik.

Kaliban'ek. — Arren-bai-arren, lurra bigun zapaldu, sator itsuak oin-otsik entzun eztagian : orain aren txabolatik ur gara.

Estepan'ek. — Mamu, ire iratxoak, ik esanez kalterik egin eztagian ire iratxoak guri egin dauskunagaz arako ontzi-mutilak yokatu euskuen baño askoz obeto etxauskuk yokatu.

Tirinkul'ek. — Mamu, sunda guztiak zaldi-txiz-andur egin yatazak ; eta au dala-ta nire surrak asarre gorrian dozak.

Estepan'ek. — Nireak be olantxe yagozak. Entzuten dok, mamu ? Asarrebiderik ez al daustak emongo, gero ; abil ardu-raz, ostean...

Tirinkul'ek. — Ireak egingo laieukek, mamu.

Kaliban'ek. — Ondo, ene yaun, oraindik begiko izango al naiatzu : izan epe, nik emongo dautzuedan sariak ezbear au uskerizat etsiko dau-ta ; orrezkeru, ez itz egin zarataka, oraindik dana dago ixilik, gaberdian legetxe.

Tirinkul'ek. — Bai, baño guk gure bonbilak iztingan galdu izana be...

Estepan'ek. — Orretan, mamu, ezbearra ta entzute ona galtzea ezeze, galtze itzala yoagu.

Tirinkul'ek. — Orrako ori nitzako, ni busti-busti egitea baño okerrago dok ; orraitño au ire iratxo erruge mamua dok.

Estepan'ek. — Ni nire bonbil-billa naioak, naiz-ta uretan ondatu nire neke-orde.

Kaliban'ek. — Arren-bai-arren, ene errege, zagoz ixilik : begiratu au, auxe da txablearen agoa : ez egin otsik, barrura. Egin arako okerreri ona, zu betiko izaro onen yaun eta yabe, ta ni, zure Kaliban, betiko zure oñetakoan miazkatzalle egingo nauena.

Estepan'ek. — Ekak esku or. : burutapen odoltsuak izaten asia nok.

Tirinkul'ek. — Estepan errege ori ! Estepan zergarri ori ! Begira emen zutzako dozuzan aldagarri bikainak.

Kaliban'ek. — Itzik ori geldi, ergel orrek ; ori aletz utsa dok.
Tirinkul'ek. — Ara ! Ara ! mamu ; guk geuk be ba-yakiguk aletza zer dan. Estepan bakaldun ori !

Estepan'ek. — Erantzik yantzi luze ori, Tirinkul ; esku arren, yantzi luze ori neutzako bear yoat.

Tirinkul'ek. — Zure ederrak izango dau au.

Kaliban'ek. — Kokaldeak itoko al dau ergel au ! zer darabilk, kutxa ori orren kutun izateko ? Goazan aurrera, ta eriotzea egin lenen : a itzarri ba'ledi, beatzetatik asita buruko ertzeraño gankadaka yosiko leukez gure narruak ; iñondiko eginik itxiko gindukez.

Estepan'ek. — Ago i geldi ta ixilik, mamu. Etzandera-ari (15), ez ete da au nire yakea ? Orain yakea dago ariaren azpian : yake, orain i ulea galtzeka zorian eta yake uldu izateko bidean ago.

Tirinkul'ek. — Aurrera, aurrera ; guk neurrira ta aztara (*pi-xura*) dagigu lapurretan, gu ezgara zure ederraren antzeko.

Estepan'ek. — Eskerrik asko izkirimiri orregaitik : eutso aldagarri bat sarizat : « Neurrira ta aztara ostutea » eztok buruargialdi makala ; eutso beste aldagarri bat orren alderako.

Tirinkul'ek. — Mamu, ator, ezarri egiek atzai eraskin apur bana ta atera ondakinak.

Kaliban'ek. — Orreitarik arean be eztot gura nik ; astia

(15) Etzandera-ari. Shakespeare'k emen « *mistresse line* » diño, baño « *line* » itza ingelanderaz esan-gura askokoa da-ta, emen Shakespeare ostera be berari gogo-gogoko yakozan zimardikakaz datorku. Emen « *line* » itzaren esan-guretatik arira datozen bi aipatuko dodaz : 1) emakumek yantzi ikuz-barriak eskegi ta legortzeko erabilten daben burdin-ari nai beste gaiezko aria. — 2) Zerbait neurtzeko erabilten dan galartzua. Eztot uste Mirande'k yantziak eguzkitan eskegitoko neurtzeko galartzurik erabiliko ebanik, osteango ari sendoen bat baño, burdin-aririk ez izatekotan. Beraz, gure mozkorti txitxariok, « *line* » zimardikak ziriala-ta, gauza barregarriak esaten ekin eutsoen. Yantziak eskegitoko aria yantzien ganean yarri ta neurtzen daragoionarena egin, eta, olan, eurak beste lapurren eraz barik gauzak luzera-zabalera ta aztuna neurtuta ostuten ebezala zsan. Ortxe dago egon be Tirinkul'en esakerearen gatza, ta Estepan'ek gatz ori sarigarri aurkitu eban. Bai ba, gure lapurrak, ez bestek, eztabe astirik galtzen olango zeretan, neurri barik al dauenak al dauena eroan baño.

alperrik galdu baño eztozu egiten-da, gu guztiok antzartu naiz matxangotu egingo gara gure arpegi zirtzilak lurra begira dogu-zala.

Estepan'ek. — Mamu, ezarri ire atzak ; eta lagundu guzti au nire ardao-upela dagoan lekura eroaten, ostean nire bakalder-ritik atera egingo aut : eldu, eroan au.

Tirinkul'ek. — Au be bai.

Estepan'ek. — Bai, eta bai au be.

Ostotsak entzuten dira. Iratxo batzuk aurrera, eiza-txakurren antza artuta, ta ai yarraitzen dautse. POSPER eta ARIEL txakurrak ai azoten.

Posper'ek. — Axa, « Gorri », axa !

Ariel'ek. — « Zuri », or doa, « Zuri ! ».

Posper'ek. — « Tximist », « Tximist », arei, « Odoltzale », arei ! Entzun ! Entzun !

(KALIBAN, ESTEPAN eta TIRINKUL uxatu dabez.)

Zoazie, yarraitu nire iratxook barraban askarri orreik euren azur-giltzak ereikera gogorrez eio dagiezan ; laburtu euren zan eta mamiak luzaroko zainoratu ; eta zastada-antzezko orbanek katanabarra nai basakatua baño yosiago egin.

Ariel'ek. — Entzun, orroaka daragoioe.

Posper'ek. — Ondo be ondo eizatu aik : une onetan nire bendeau dodaz nire arerio guztiak : nire lorrak laster dira amaitu ta i azke ta ire buruaren yabe izango az eguratsetan : yarrai egidak apur baten, eta izan adi nire otsein. (Alde dagie.)

V E K I T A L D I

I Agerleku. — POSPER'en txabola-aurrea.

POSPER aurrera, itzalez txairo yantzita ; eta ARIEL.

Posper'ek. — Orain doa nire asmoa atzenerantza. Nire lilurapenak eztabe porrotik egiten ; nire iratxoak esaneko dodaz ; eta aldia aurrera doa bere burdian. Eguneko ze ordu dok ?

Ariel'ek. — Seirak dira ; eta gure egitekoa tertzio onetan amaituko zala esan zendun zuk, ene yaun orrek.

Posper'ek. — Bai, orixe esan naioan, nik lenengoz ekatxa sortu nebanean. Esaidak, iratxo, nolan yagozak errege ta aren lagunak ?

Ariel'ek. — Guztiak leku baten, zuk agindu zeunstanez ; egin-eginean zuk zeuk itxi zenduzan lez, yaun ; guztiak atxilotuta zure txabolearen babesgarri dan astigardian ; aik ezin dabe zirkirik egin zuk azkatu arte. Errege, aren anaiea ta zurea irurak dagoz besteakandik banazeau ; eta enparauak arei buruz ilete-tan, naibagez ganezka ta gogo-yausirik ; baño alan be, zuk, yaun, bein « Yaun zar on Gontzal » deitu zenduana ; aren bizzarra-bera negar-tantanak ingeen orrietatik negu-tantanak yausten dirian legetxe yausten dira : zure lilurapenak ai gogor-gogor eldu dautse-ta, orain ikusiko ba'zenduz ikusi, erruki emongo leuski-zue ta samurtuko zintzatekez.

Posper'ek. — Ori uste dok, iratxo ?

Ariel'ek. — Ni samurtuko nindukie, yaun, ni gizaki bantintz.

Posper'ek. — Ni be samurtuko nabe. I egurats utsa baño izan ez-ta, arein biotzetako lera-leieak biotz-ondoan ukutu dauskai iri be ? Eta nolan izan ez ni, arein izakide izan-da, biotzaren ereikera, zirk'n eta Yasanak ondo be ondo ezagun dodazan au, nolan izan ez i baño biotz-ausiago ? Arein okerreriak niri bioz-biotzean ukutu izan-arren, orraitio be, ik zindo esanari yarrai, nire asarrearen aurka yarten nok : egite ona asperkunda baño urriago dok baztarretan : aik garbaituta dagozanezker, nire asmoa ai betozko ilun bat geiago ez egitea dok. Oa, azkatu egizak, Ariel : nire lilurapena manatu egingo yoat, arein oarmenak leneratu, eta ostera be lengoak izango dozak.

Ariel'ek. — Ba-noa euren billa, yaun. (Alde dagi.)

Posper'ek. — Mendi, lats, zingira geldi ta zugaztietako iratxoak ; eta oñatzik izten eztaben zuon oñez izperaz Netun'eri (16) yarraitu ta izkoraz atzera datorrenean igesten dautsazuenak ; zuok, ardik yaten eztauzan bedar-moltsotxo muskerrak iretargitan egiten dozuezanok ; eta zuok, gau-yoale-ots itzalak poztu

(16) Netun. Ikusi (1).

ta zuon yolastzat gaberdi-perretxikoak azten dozuezanok ; zuok ugazaba erkinak izan-arren, nik zuon laguntzaz eguerdiko eguzkia ilundu dot, axe asaldariari aurrera urten eragin dautset, eta itxaso musker eta ortze urdinaren artean guda gorri-orroatsua sortu dot ; ostots ikaragarri-zaratatsuari sua emon eta Yupiter'en areitz garrastea berberaren oñaztarriz (17) arrakaldu dot ; oñari sendoko legormuturrari ikara egin ; eta lerra ta izaia zustarretatik atera dodaz ; il-obiak, nire aginduz, an lo egozanak iratzarri, idigi ta barrukoai urteten itxi dautse, nire antze indartsuari eskerrak. Baña lilura-bide latz oneri ementxe ta oraintxe agur egiten dautsat ; eta nire asmoen eskariz, bein onako onein oarmenari zirkin eragiteko zerutiko eresien bat eskatu dagidanean (eta oraintxe nago orren eske, eguratsaren lilurapen au, izan be, oarmenai zirkin eragiteko da-ta), nire makilea ausi egingo dot, lurpean barru-barrura sartu, ta nire idaztia egundo ari-berunik eldu dan baño barrurago murgilduko dot uretan. (*Eresi andi-ben.*)

Ostera be ARIEL aurrera : aren atzetik ALBONTSA, zoro-mosuz, GONTZAL lagun dauela ; SEBASTEN eta AN-DONI be olantxe, ADIRAN eta PANTZESKA lagun dabezala ; guztiak sartzen dira POSPER'ek aldiz aurretik eginiko toki biribilera ta an dagoz liluratuta zutunik ; eta au ikusirik ara POSPER itz egiten asten da.

Irudimen asalduentzat pozkarririk onena dan doñu andi-ben onek osatuko al dau orain ezetarako eztan, eta zure buru-azurraren barruan dirikian zure adimena ! Or zagoz zu zutunik, lilurapenak geldituazota zagoz-ta. Gontzal guren, gizon zindo, ikusiaz beste barik nire begiak zureen kide dira-ta, nire begioi kide-negar-tantanak darie. Lilurapena ondatuz doa geldi-geldi ; eta egun-abarra, lapurraren antzera, ixilik eta oinkadatzoka gauagana yoan eta aren iluntasuna urtuten dauen lez, olantxe, yagi ta biztuten daragoien orren oarmenak be asten dira adimen

(17) Izan be, areitza Yoba'ri eskeñiko zugatzza zan, Yoba'ren kutun zugatzen artean. Orregaitik, zugatz ori oñaztarriz arrakaltzea Yoba'ren kutuna here geziz arrakaltzea da.

argiogoaren ez-yakin-lañozko estalgia urratzen. Gontzal on ori, nire yareigile zintzo, ta yatrutzen dautsazunarentzako yaun zintzo ori ; ire on eginak eta eskerrak nik egundokorik ondoen ordainduko dauskadaz, bai itzez, bai egitez. — I, Albontsa, i nitzako ta nire alabearentzako gordin be gordin izan intzan : orretan ire anaiea ire bultzatzalle izan zoan ; — orregaitik orain, Sebasten, gankadaka azkatuta ago, azkatu-azkatua. — Eta ik, nire anai orrek, ire biotzean geiogoaren leiea dokan orrek, ik kezkek eta izamena ortik zear bidali enduazan ; eta ik, Sebasten'ekin batera, eta egin eginean be orrexegaitik dozak orren barruko zastadak mingor-mingorak, ik emen zuon errege il egin izango enduan ; i izamenaz besterako izan-arren, nik azketsi egiten dauskat. — Orrein aditzea aziaz aziaz doa ; eta etorri datorren izkoreak laster beteko dau orain lupetz eta sastamarrez estalita dagoan adimen-izpastera. Oraindik eurotatik batek be enau begiratzen, ezta ni ezautu be. — Ariel, oa nire txabolara nire txapel eta ezpatatxoaren billa ; (*Alde dagi Ariel'ek*) nire yantziok erantzita, beñola Milano'n nintzana agertuko naz : arren, iratxo ; gesu baten ire buruaren yabe izango az.

Ostera be ARIEL aurrera, ta yanzten laguntzen dautso POSPER'eri.

Ariel'ek. — Erleak zurrut non egin an egiten dot nik ;
Ni udabari-lorearen txilin-barruan natza ;
An natza mosolloak oio dagianean.
Saguzar-bizkarrean egaz egiten dot
Tellatuko aga-ostera pozor-pozorrik :
Pozor-pozorrik biziko naz orain
Adarretik dingilizka dagon lorapean.

Posper'ek. — Ara ! Ori nire Ariel bakana da ! I eza igeriko yoat nik ; baña au ta guzti be ire buruaren yabe izango az : bai, bai, bai. — Oa orain errege-itxas-ontzira, iñok i ikusteke, i iñok ikus-ezina az-ta : an aurkituko dozak ontzi-mutillak gan-zuloen azpian lotan ; ontziburura ta ontziyagolea itzarrik yagozak-eta, ekarri egizak ona ; eta bertatik ekarri be, arren-bai-arren.

Ariel'ek. — Eguratsa iruntsiz axean yoango naz eta emen nozu ostera be zure biotzak taupada bi emon orduko. (*Alde dagi Ariel'ek*).

Gontzal'ek. — Lor, naibage, alatz eta ago-zabalgarrri guztiak dira emen. Zeruok aldunen batek bidea erakutsiko al dausku lurralde bildurgarri onetatik alde egiteko !

Posper'ek. — Errege jaun, begira Posper Milano'ko Duke oker erabilia ; erregegai bizirik itz egiten dautzula seguruago yakin dagizun zure soña besartean estututen dot ; eta bai zuri, bai zure lagunoi bioz-biotzetiko ondo-etorria emoten dautzuet.

Albontsa'k. — Nik eztakit zu arako a zarean ala ez, ala aletz liluratuen bat zarean niri oker egiteko, oraintsu egin daustan lez ; zure zanak taupadaka daragoioe, zu aragi ta odolezko baizintz ; eta nik zu ikusi zaudanezkerok, zoratu bear ninduala bildur nintzan nire gogoko atsekabeak, oberantza egin dau ; onako onek iñondiko azalpena izan bear dau, au ezer ba'da izan. Nik ire dukegoa itxi egiten yoat ; eta nik iri eginiko okerrak eta kalteak azketsiko al daustazak. — Baña nolan izan leiteke Posper bizirik eta emen ?

Posper'ek. — Lenen eta beinen, adiskide zindo, itxi egidazu zure adina, zure urteak nire besartean estututen, orreïn omena neurtu-ezina ta tokik ar-ezina da-ta.

Gontzal'ek. — Au egia dan ala ez, nik eztot zinik egingo.

Posper'ek. — Zuk oraindik zure ago-sapaian izaro onetako iñondiko gauzen gozo-garratza dozu-ta, orrek eztautzu izten egizko gauzak sinesten. Ondo etorriak adiskide guztiok : — (*Banazean Sebasten eta Andoni'ri*) Baña zuok, nire jaun bikonde ori, gogoak emongo ba'leust, nik emen nagusientasun orren be-tozko iluna ekarri nengike zuon ganera, ta zuok azpiyale zariela erakutsi ; aldi onetan enoa ni barritsu izaten.

Sebasten'ek. — Orren agotik txerrenak daragoio itz egiten (*Bere kitean*).

Posper'ek. — Ez : — eta zuri barriz, zuri jaun zantar orreri, zuri anai deituko ba'neuntzu, nire agoa kutsutuko-arren, zure okerrerririk andurtsuena azketsi egiten dautzut ; ori ta oker guztiak ; eta iri nire dukegoa atzera niri emoteko agintzen dauskat, nik ondo dakidanez, ik ori atzera nai-ta-nai-ez emon bear dok-eta.

Albontsa'k. — Zu Posper ba'zara, zeatz azaldu egiguzu nolan yarei zintzan ; nolan emen gukin batera yo dozun, ontzia galduta itxas-ertz onetan iru ordu egin doguzanokin ; nire seme maite Perdinanda galdu dodan itxas-ertz onetan. Galtze orren oroipenaren zorrotz-mingots !

Posper'ek. — Orrako orren tamal itzala dot, jaun.

Albontsa'k. — Galtze ori arteztu-ezina da. Eta epeak bere-tzako geiegi dala diño.

Posper'ek. — Nik besterik uste dot : zuk aren laguntzarik eztozula billatu ; zurea langoxe galtzean aren eskar samurretik aren gorengo laguntasuna izan eta orain pozik naukana.

Albontsa'k. — Zuk be galtze bardiña ?

Posper'ek. — Andi ta beranduko ; eta galtze itzal ori ya-sangarri egiteko nik dodazan bide estuen aldean nasaiak dozuz zuk zure pozkaritzat, erabili gura ba'dozuz ; nik alabea galdu dot-eta.

Albontsa'k. — Alaba ! Zeruok, bizirik al legoz biak Na-poli'n, ango errege ta erregeño ! Orrako ori ba'lira aik, ni pozik nengoke itxaso gaziaren ondoko lupetzan, nire semea datzan leku atantxe. Noz galdu zendun zuk alabea ?

Posper'ek. — Oraintsuengo ekaitz onetan. Nik oartzen do-danez, jaunok alkarrekin trikitx egite onetan, gelduaren gelduz euren adimena iruntsita, nekez uste dabe euren begiak egirako bide diranik, euren itzak berezko arnasa diranik : baña zuon oarmenak nastuta egon-arren, eskiertzat yakizue ni Posper na-zala ta Milano'tik egotziko dukea berbera ; zuok ontzia galduta legorreratu zintzen toki onetantxe legorreratua, era iñondikorik iñondikoz, lur onetako jaun izateko. Ez geiagorik onetaz, onen azalbena gosari-bitartean esatekoa barik egunetarakoa ta gure lenengo batzar oneri ez dagokiona da-ta. Ondo etorriak, jau-nak ; txabola au da nire yauregi : nik emen otsein gitxi dodaz, eta erbestean bendekorik arean bez : arren, begiratu barrua. Zuk atzera emon daustazun dukegoaren orde z nik a baño zer txikiagorik eztautzut emongo : gitxienez, ni dukegoak aña poz-tuko zauen zer arrigarria aterako dautzut aurrera.

*Txabolako atea idigiten da ta PERDINANDA ta MIRAN-
DE agirian yarten dira, axederetz-yokoan daragoioela.*

Mirande'k. — Zuk zikin yokatuten daustazu, yaun maite.

Perdinanda'k. — Ez, maite-maite ori, mundu osoagaitik be
eneunskizu egingo olangorik.

Mirande'k. — Bai, ogei bakalderrigaitik zuk goiak eta beak
yoko zeunkez, eta nik zuk yoko garbia darabiltzula esango
neunke.

Albontsa'k. — Au izaro onetako ikuskizun utsa ba'da, seme
maite bat bera nik birritan galdu dot.

Sebasten'ek. — Au bai alatz andi, alatz andirik ba'da !

Perdinanda'k. — Itxasoak zemaika ibili-arren, errukior dira :
bide barik gaiztetsi dodaz. (*Perdinanda Albontsa'ren aurrean
belaunbiko yarten da*).

Albontsa'k. — Orain aita pozez betearen onspen guztiak
barruan artzen abe ! Yagi ta esan egik ona nolan etorri intzan.

Mirande'k. — Au bai ba-dok alatz ! Eneee ! emen dagoan
on-moltso ! gizatasunaren ederra ! ludi-arlo barriaren bikain,
olango lagunak dauzanezkero !

Posper'ek. — Au zuri barri egiten yatzu.

Albontsa'k. — Nor da zukin yolasean eragoion neska au ?
Zuon ezaguerarik zarrena be ezin izan leiteke iru orduz gora-
koa. Ori ete da gure otseintzan ibili ta gu batera ona ekarri gau-
zan yainkonoa ?

Perdinanda'k. — Yaun, au ilkizun da ; baña Yaungoikoa'
ren aurre-ikusi il-ezinez nirea da ; nik nitzako artu dot au nik
aitari bere eretxirik ezin eskatu izan dautsadanean, ezta uste
izan be aitarik dodanik : au Milano'ko Duke entzute andiko
onen alabea da, sarritan adeiz entzun bai, baña egundo lenago
ikusi enebanarena ; bigarren bizia emon daustanarena ; eta
andera onek au bigarren aitatatzat emoten daust.

Albontsa'k. — Ni naz No orrena : baña au iñondiko-iñon-
diko gauza iruditu-arren, nik nire semeari azkespen eskatuten
dautsat !

Posper'ek. — Geldi or, yaun, eztaiguzan aztundu ta naiba-
getu gure oroimenak, yoandako lorrak diriala-ta.

Gontzal'ek. — Nik nire barruan negar egin dot, edo-ta nik

onen aurretik itz egin bear neunkean. Yainkook, itzuli zuon be-
giak ona bera, ta eralgi bikonde onen ganera burestun onetsi ;
gu ona ekarri gauzan bidean bide-atzak zuok imini dozuez-ta !

Albontsa'k. — Nik « olantxe » yiñoat, Gontzal !

Gontzal'ek. — Bere ondorengoak Napoli'ko errege izateko
egotzi ete eben Milano Milano'tik ? Ara ! Edozelango pozez
ganetik poztu zaitez ; eta sakon irarri egizu zutiko iraunkorre-
tan : ostera bat bakarrean idoro eban Karibele'k senarra, Tu-
nixa'n ; eta Perdinanda, aren nebeak, emaztea bera galduta
egoan tokian aurkitu dau ! Posper'ek bere dukegoa, izaro txi-
roan ; eta guztiok gure buruak iñor bere buruaren yabe etzan
lekuan.

Albontsa'k. — Ekazuez zuon eskuak (*Perdinanda ta Miran-
de'ri*). Naibageak eta lorrak besarkatu begie oraindik zuoi poza
opa eztautzuenaren biotza !

Gontzal'ek. — Bedi olan ! Bai, olantxe !

*ARIEL ostera be aurrera, Ontziburua ta Ontziyagolea
ago-zabalik yarrai doakozala.*

Begira, yaun, begira, yaun ; amezan gutariko geiago ! Nik
esan neban aurreztik, legorrean eskegiteko agarik izatekotan,
lagun ori ezin ito eitekeala uretan. Orain, biraoti orrek, ontzian
biraoak eurrez yaurtiten enduazan orrek, legorrean birao ta zin
bat be eztok egozten ? Legorrean ez ete dok agorik ? Ze barri
dok ?

Ontziyagoleak. — Barririk onena, errege ta bere lagunak
guk onik aurkitu izana da : urengoa, gure ontzia ; eta izan be,
guk, arrezkero iru ordu baño eztala, arrakaldutzat emoneko ont-
zia orain birrintza ta irrikitu barik, arin eta bikain orniduta
dago, lenengoz itxasoratu gintzanean legetxe.

Ariel'ek. — (*Bere kitean*) Yaun, otseintza guzti au egin dot
ara yoan nintzanezkero.

Posper'ek. — (*Bere kitean*) Nire iratxo asmotsu orrena !

Albontsa'k. — Onako oneik ez dira eurenez yazoak ; oneik
iñondikotik iñondikorago doazanak dira : esan, nola etorri zarie
zuok ona ?

Ontziburuyagoleak. — Yaun, ondo itzarrrik gagozala uste ba'neu, zuri esaten aleginduko nintzakete. Gu logurearen loguraz ilik gengozan, eta, nik eztaikit zelanik, guztiok txaloka ekin geuntsan ontzi-zulopean, urdulerartean inondiko orroa, irrintze, ausi, kate-ots eta guztitariko ots, durundu, ta astrapalak, guztiak ikaragarriak, gu itzarrrik gengozala izan zirian lekuan, gero bertatik azke : eta an ikusi gendun guk guztiok gure errege-ontzi on, ixairo, arroa orratzetik arako eginda ; gure ontziburua ara ta onaka, yauzika, ontzia begiz aztertzen : aide baten (azketzi, yaun), amesetan lez, gu aikandik banandu egin ginduezan, eta ona ekarri mosuak egiten.

Ariel'ek. — (*Bere kitean*) Ondo egina ete ?

Posper'ek. — (*Bere kitean*) Itzalezko ederto, otsein zoli. Eure buruaren yabe izango az.

Albontsa'k. — Inondiko bide-mataza nastu au egundo gizonek zapaldu eztauen langoa da ta orretan izamenaren egitekoea baño zerbañt geiago da : goitiko argiren bat bearko dogu au zuzentzeko.

Posper'ek. — Yaun, nire nagusi, ez lorrindu zure adimena, arazo onen inondikotasunak zartadaka darabilen zure adimen ori : asti egokirik izan dagidanean, eta ori laster izango dogu, neuk bakarrik arteztuko dautzut arazo ori ; yazoko guztien azal-bena emongo dautzuet eta sinisgarri egingo yatzuela nik uste : egon pozik ordurarteño, ta oldoztu ondo zer bakotxari buruz. — (*Bere kitean*) Erdu ona, iratxo ; azkatu Kaliban eta aren lagunak : banatu lilurapena. (*Ariel'ek alde dagi*).

Nolan aurkitzen da nire yaun maitagarria ? Oraindik ezтира emen zuon lagundiko, zuok aitzurik dozuezan mutil banaka bakun batzuk.

ARIEL ostera be aurrera, *KALIBAN*, *ESTEPAN* eta *TIRINKUL*, euren yantzi ostuekaz aurrean dakazala

Estepan'ek. — Gizon bakotxak besteen ardurea izan dagiala, ta ez bere buruari yaramon ; dana alan-bearrezko baño ezta-ta. Adoretzu, mamu bikain, adoretzu !

Tirinkul'ek. — Nik nire buruan daroadazanak benetako iru barrandari ba'dira, emen ikuskizun ederra dogu.

Kaliban'ek. — Setebotz ori, oneik iratxo lirainak dira benetan ! Nire ugazabaren txairo ! Zigortuko nauenareñ bildur naz.

Sebasten'ek. — Ostera ! Ostera ! Oneik bai ba-diriala gauzak, nire yaun Andoni ! Diruz erostekoak ete dira ?

Andoni'k. — Bai, urrean ; euretari bat arrain garbi da, ta, ezpai barik, salgai.

Posper'ek. — Ene yaunok, oartu gizon orreñ ezaugarriak, eta esan gero egia diñoen ala ez. — Antz zakarreko zirtzil au, — onen ama sorgin zan ; eta almen andiko sorgina izan be-ta, bere esaneko egin eikean iretargia, izkorak eta izperak eragin, bereak eskuratu ezinik : oneik irurok lapurretan egin dauste : eta onako erdi-txerren au, — au sasi-kume da-ta, — orreikin itundu zan niri bizia kentzeko : lagunotatik bi zuok ezagutu bear zeunkiez eta zuatarikotzat autortu ; ilunbe-zer au nik niretzat autortzen dot.

Kaliban'ek. — Zastadaka ilgo nau.

Albontsa'k. — Ez ete da onako au Estepan, nire ardan-degi-zain mozkortia ?

Sebasten'ek. — Ori mozkortuta dago orain be : non ete eukan ardaoa ?

Albontsa'k. — Tirinkul be mozkorraren mozkorrez zabuka ta kakoka dabil : non idoro ete dabe orreik gorritu dauzan edabe bikain ori ? — Zelan pipergorritu az ?

Tirinkul'ek. — Zu azkenengoz ikusiezkeru ni pipergorriturik nozu ta bildur naz azurretaraño pipergorritu ete nazan. Margoztu nagienaren bildurrik eztot izango.

Sebasten'ek. — Zelan ago orain, Estepan ?

Estepan'ek. — Ez egidak ukutu, arren ; ni enok Estepan, zain-oratu baño.

Posper'ek. — Ik izaro onetako errege izan bear enduke, yauntxo !

Estepan'ek. — Orrezkeru, errege minbera nintzateke.

Albontsa'k. — Onako zer au nik egundo ikusikorik inondikoena da (*Kaliban erañutsita*).

Posper'ek. — Ori bai bere ekanduz, bai soñez be, neurrizkoa ez, besterakoa da. — Oa, kirten, nire txabolara ; artu ikin batera ire lagunak ; nire azkespenaren begira ba'ago, iñozkorik txairoen iminiko al dok a.

Kaliban'ek. — Bai, iminiko dot ; eta emendik aurrera zur izango naz eta zure ederra billatu. Ni bai izan nazala buru bako astotzar mozkor au yainkotzat artu ta ergel motel au yaures-teko !

Posper'ek. — Oa ; alde emendik !

Albontsa'k. — Alde, ta itxi zuon kutxa ori idoro zenduen lekuan.

Sebasten'ek. — Edo, obeto esan, ostu zenduen lekuan.

(*KALIBAN, ESTEPAN eta TIRINKUL'ek alde dagie*)


Posper'ek. — Yaun, nik zu nagusi ta zure lagunai nire txabolara dei egiten dautzuet : eta gau onetako atsedena an artuko dozue ; eta gau ori edo gau orren zati on bat beintzat, nire ustez, nik egingo dautzuedan itzaldiak arin eroango dau ; ni izaro onetaraezkeroko nire bizitzeari ta berekiko yazopenai buruzko itzaldiak ; eta goxean zuon ontziratuko zauedaz-ta, olan, Napoli'ra, nik ditxarodanez, gure ezkon-barri maite-maiteon ezteguak an andiro eginda ikusteko ; eta andik nik Milano'ra alde egiteko, an nik iru oldozpenetik bat nire ilobiari buruzko izateko.

Albontsa'k. — Zure bizitzako gora-bera ta zertzeladak entzuteko leia itzala dot nik, belarriari iñondiko egingo yakoz-ta.

Posper'ek. — Dan-dana zeatz esango dautzuet : eta zuri, zure errege-ontzidia urrinean oratzeko itxaso bareak, erako axe leunak eta itxasaro atsegina opatu. (*Bere kitean*) Ene Ariel, — txoriño, — au dok ire egitekoa : orrezkero, oa lenengaietara. Izan adi eure buruaren yabe ta abil onik eta ondo ! — Arren, urreratu zakidaze (*Alde dagie*).

Orain nire lilurapenak egotzi dodaz
Eta dodan al oro neure-neurea da, —
Eta au makal-makala da : orain egia da
Edo zuok ni emen mugaturik itxi bear nozuela,
Edo Napoli'ra bidali. Nire dukegoa lortu ta
Ziri-sartzalleari azketsi dautsadanezkero,
Zuon lilurapenez ni izaro basamortu onetan
Ez al nozue ezetara be itxiko :
Bai, ostera, azkatu nire lokarriak
Zuon esku onen laguntasunaz.
Zuon arnasa bigunak bete bear dauz
Nire ontzi-oialak, edo, ostean, zuon pozkarri
Ziran nire asmoenak egin dau. Nik orain
Iratxoak bear dodaz ai agintzeko, liluratzeko antzea ;
Eta nire atzena etsipena litzateke
Iñok niri otoitzez laguntzeka :
Otoitza sarkor-sarkor da-ta, errukigana eltzen da
Ta uts eta akats guztietatik yareiten dau.
Zuok zuoi zuon makurkeriak iñok azkestea
Gurako zeunkien lez, zuon errukiak yareiko al nau.

Salta (Argentina'n) 1958/V/2'an.



Itzotatik geienak zarrak dira, baña Bizkai'ko euzkeldunen artean ez-ezagunak edo gitxik ezagun dabezanak. Euzko-erki baten naiz erkiko erriren baten darabilten itza, besteetan erabili ezik, oneintzat ez-ezagun egiten da. Itzotatik banaka bat barria da. Eta Orati erromarrak zur eta egiten da. Itzotatik banaka bat barria da. Eta Orati erromarrak zur eta sentzunez iñoanez ezin ukatu leio iñori itz barriak asmetako eskubide-rik, zer barriri izena emoteko. Ez okertu, ba, musturrik itz barriren bat bidean aurkitu ha'dagizu. Zarrak berbiztu ta barri egokiak gure arloratu bear doguz, gure euzkerea sendotzeko. Euzkerea edozetarako gai egin bear dogu, ez baserri-gaietarako bakarrik.

Aiazo (Arratia). — Txakurra zirikatu, norbaiteri nai zerbaiteri eldu dagion.

Aletz (Zeanuri). — Uskeri.

Alatz. — Almen andia iragarten dauen zerbait. Euzkel-gaitzoz « mirari ».

Antze. — Terbetasuna. Euzkel-gaitzoz « abilitade ».

Arkolo. — Nagi, alper.

Azarri. — Adoretzu, oldartsu.

Azpiyale. — Norbaiteri zintzo ez yakona. Saltzalle.

Azta. — Aztun « pixudun » danezkero, Azta « pixu » da.

Barrandari. — Iñok zer egin, naiz zer esaten dauen yakiteko ku-

kuka dagoana.

Biusturi (Zeanuri). — Urdail. « Biusturiko min » = urdallako min.

Bonbil. — Euzkel-gaitzoz, « botilla ».

Buruntz, *Burestun*. — Erregeak erregetzea iragarteko buruan yarten daben zer horobil.

Edestu. — Ipuin nai beste zerbait urrengorik urrengo esan edo eralgi ; « kontau ».

Erdi, *Erdiratu*. — Ume-egin. Olan, « erdi-minak » = ume-minak.

Etoi. — Azpiyale, saltzalle.

Geldu. — Ustebako zer andi nai iñondikoaren aurrean arrituta ta ago-zabalik gelditzea.

Gelgarri. — Arrigarri.

Gentza. — Euzkel-gaitzoz, « bake ».

Giyau (Zeanuri). — Landu. « Soloa giyau » = soloa landu.

Intsigi (Otxandiano, Azkue'n iztegitz). — Itxiki. Itxiki'tik iratxiki datorren lez, Intsigi'tik erantsigi edo erantsi dator. Ganera, I (n) tsigni ta itxiki be biak dira itz bat. Kendu « intsigi »-ri n, yarri g'ren ordez k gogorra, ta or dozu « intsigi » « itxiki » tuta.

Iratxo. — Miti-iztikiko gizona baño goragoko adimendun eta soin hako edo soin arineko izakiak, eta euretarik batzuk gaitzoak. Olan, « Anboto'ko señora », lami ta orretariko beste mundukoak iratxotzat etsi bearko doguz.

Itxas-Neska. — Neska-antzeko itxas-iratxo.

Itsuta. — Euzkel-gaitzoz « soka », « Soka » lodi.

Izten (Zeanuri). — « Barreka istenak egin genduzan » esaten da Zeanuri'n beintzat ; orrezkero, « izlen » eta « eztanda » esan-gura bereko itztat artu bearko.

Kokalda (Zeanuri). — Gibeletiko gatxa. Erderazko « hidropesía ». Kokaldea dauen ardiari soña urez beteten yako ; bardin « hidropesía » dalakoa dauen lagunari be.

Kerube. — Ebertarren izkuntzako *Kerub* itza yatzu, ta angeru berezia da itz orrek esan gura dauena.

Ler. — Euzkel-gaitzoz, « piñu ». Euzkel-errian orain ler geiegi dogu ta pago gitxiegi.

Margo. — Euzkel-gaitzoz, « kolore ».

Margoztau. — Zerbaiteri margoa czarri.

Meiki (Arbizu). — Oñetan, naiz zango-iztarretan gaitzen bat izan-da, alboraka ibiltan dana. Euzkel-gaitzoz, « erren » naiz « koxo ».

Okolu. — Zoko.

Orratsetik arako. — Egin-barri.

Oskide. — Alkarren adiskide dirian « soñuak » oskide diriala esaten dogu.

Sakute (Zeanuri). — Baztanga, naparreri.

Txandar (Zeanuri). — Zango. « Txandar-me » esaten da Zeanuri'n, zanga-me'ren ordez.

Unatu. — Neke-nekatu, ciota gelditu.

Ur-Neska. — Ibai eta latsetako neska-antzeko iratxo.

Yakinkidetsa. — Euzkel-gaitzoz « kontzientzia ». Besteak dakienik guk ezpa'dakigu, gu ezkara orretan yakinkide. Besteak nik au edo besterik egin dodala esan-arren, nik neuk ezpa'dakit olangorik egin dodanik, ni enaz orretan yakinkide, nik eztot orretan yakinkidetzarik. Zille-giztilariak diñoenez, guk beti yokatu bear ei dogu geure yakinkidetzeak dirauskunez, ez bestean yakinkidetzeak diñoanez. Besteak onako au naiz orrako ori ontzat izan-arren, nik neuk ezpa'dot, nire yakinkidetzeak on dala ezpa'diño, nik olangorik egin ha'dagit, oben egingo dot, nire yakinkidetzearen aurka yokatuten dodalako. Egia esan, orretan ni ta besteak ezkara yakinkide, kide izateko nik eta besteak eretxi batekoak izan bear dogu-ta.

Yaurri. — Elburua begien aurrean dogula, gizakiak elburu orretara zuzendu. Gizakien ludi onetako elburua euren zori ona da, baña ez gizaki onena edo orrena, guztiena baño, ta gizadia elburu orretarako bidean eukiteko aleginak egiten dauzan agintariak erria ondo « yaurten » dau. Euzkel-gaitzoz, « gobernau ».

Yaurgo. — Yaurriteko eskubidea dauena, naiz dabenak, baita orretarako eskubidea bera be.

Yauzi. — Euzkel-gaitzoz, « salto », naiz « sailtu » egin.